

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA SAILA

3527

AGINDUA, 2021eko maiatzaren 20koa, Hezkuntzako sailburuarena, helduen Oinarrizko Hezkuntzaren berriazko curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 16. artikulua irakaskuntzaren gaineko eskumen propioa ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoari, hedadura, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan.

Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen helburu nagusia da hezkuntza-eskubidea benetan baliatu ahal izateko eta hezkuntza-prozesua arrakastaz amaitzeko aukera bermatzea. Halaber, EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeen funtzionamendu eta antolamendu egokia arautzen du.

Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian ezartzen denez, Oinarrizko Hezkuntzari dagozkion kompetentziak eta ezagutzak eskuratu nahi dituzten helduei beren baldintzetara eta premietara egokitutako eskaintza egingo zaie, aurrez aurreko zein urrutiko hezkuntzaren bidez.

Dekretu horretan ezartzen da, orobat, Helduen Oinarrizko Hezkuntza berriazko curriculum baten arabera garatuko dela, dekretu horren II. eranskineko curriculum egokitzuz. Berriazko curriculum horrek, halaber, Oinarrizko Hezkuntzako gainerako ikasgaietako alderdiak jaso ditzake haiei dagozkien arloetan. Agindu honen xedea da helduentzako Oinarrizko Hezkuntzako curriculumaren egokitzapena arautzea, bai eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatuaren titulazioa ahalbidetuko duten oinarrizko gaitasunak lortzea ere.

Beraz, dagozkion aginduzko txostenak egin ondoren, eta Euskadiko hezkuntza-komunitateak egingako iradokizun eta proposamenak jaso eta aztertu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoaren hezkuntza-eskumenen arabera, bidezkoa da, Agindu honen bitartez, helduen Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezartzea.

Horrenbestez, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-eremua.

1.– Agindu honek helduen Oinarrizko Hezkuntzaren antolaketa, berriazko curriculum eta haren ebaluazioa ezartzen ditu 236/2015 Dekretuak, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

2.– Helduen Oinarrizko Hezkuntza aurrez aurre nahiz urrutitik egin ahal izango da, eta alfabetatze hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortu arteko prestakuntza-prozesua hartzen du barne.

3.– Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoan helduen Oinarrizko Hezkuntza irakasteko baimena duten ikastetxe guztietan aplikatuko da.

4.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan titulua lortzera bideratutako prestakuntza-prozesua, batez ere, epe laburrean titulu hori lortu behar duten pertsonei zuzenduta dago, bai lan-munduan sartzeko, bai ikasten jarraitzeko.

2. artikulua.– Helburua.

1.– Helduen Oinarrizko Hezkuntzaren helburua da agindu honetan jasotako oinarrizko kompetentziak eskuratzeko aukera ematea heldu guztiei, errazago izan dezaten bai beste prestakuntza-ibilbide batzuetan sartzea bai laneratzea, eta, hortaz, lagungarri izango da herritar aktiboak sortzeko eta gizarte-inklusioa sustatzeko.

2.– Dekretu honen II. eranskinean jasotako arlokako curriculumaren eta ikastetxeek hezkuntza-proiektuetan curriculum horri egindako zehaztapenaren xedea da, betiere, oinarrizko kompetentziak eskuratzen laguntzea.

3.– Oinarrizko erreferentziatzat hartuko dira helduak Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko gaitzen dituzten helburu nagusiak, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren arabera.

4.– Ikasleak oinarrizko kompetentzia horiez modu eraginkorrean jabetzeko, ikastetxeek jarduera integratuak diseinatuko dituzte, ikasleek kompetentzia bat baino gehiago ikas dezaten aldi berean.

3. artikulua.– Curriculumaren antolamendu-printzipioak.

1.– Helduen Oinarrizko Hezkuntzarako agindu honetan ezarritako curriculuma moduluka antolatuko da hiru arloren inguruan: komunikazioaren arloa, gizarte-arloa eta arlo zientifiko-matematikoa. Komunikazioaren arloan, Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Atzerriko Lehen Hizkuntza sartzen dira. Gizarte-arloan sartzen dira Geografia eta Historia eta Balio Etikoak, bai eta plastika- eta ikus-hezkuntzaren eta musikaren curriculumaren alderdiak ere. Zientzia eta Matematikaren arloan Matematika, Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika eta Teknologia sartzen dira.

2.– Helduentzako oinarrizko prestakuntza hiru mailatan egituratuko da moduluka:

a) Hasierako Irakaskuntzak I (I. gradua), helduei matematikarako eta hizkuntza-komunikaziorako gaitasunei lotutako oinarrizko edukiak eskuratzeko aukera eman behar diena.

b) Hasierako irakaskuntzak II (II. gradua) edo pertsonaren garapen integrala ahalbidetuko duten ezagutzak eta gaitasun orokorrak finkatzekoak. Gradu hau 1. mailan (1., 2. moduluak) eta 2. mailan (3., 4. moduluak) antolatzen da.

c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (III. gradua), helduen prestakuntza osatu, zabaldu eta sakontzera bideratuta dagoena, horiek amaitzean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko gaitasun nahikoak izan ditzaten. Gradu hau 1. mailan (1., 2. moduluak) eta 2. mailan (3., 4. moduluak) antolatzen da.

4. artikulua.– Hezkuntza-eskaintza.

1.– Ikasturte bakoitzean, irakaskuntza arautuaren hezkuntza-eskaintza (graduak, moduluak eta bakoitzean baimendutako talde-kopurua) gaian eskumena duen organoak zehaztuko du.

2.– Ikastetxeek hezkuntza-eskaintza horretan baimendutako taldeak eman ahal izango dituzte, irizpide hauen arabera eratuta:

a) Taldeak 20 ikasleko oinarriaren gainean osatuko dira Hasierako Irakaskuntza I graduan, eta oinarri hori taldeko 30 ikaslekoa izango da Hasierako Irakaskuntza II. Graduan edo Bigarren

Hezkuntzan. Nolanahi ere, ratio hori handitu ahal izango da, kontuan izanik ikasleak esparruka matrikulatzen direla eta kontuan izanik, halaber, ikaskuntza hauetako ikasleek berariazko gora-beherak ikasleek baja eskatzea ekar dezaketela zenbait kasutan.

b) Ez da onartuko 12 ikasle baino talde txikiagorik Hasierako Irakaskuntza I graduan, ez eta 17tik beherakorik ere gainerakoetan, Organo eskudunak berariaz baimendutako salbuespenak izan ezik.

c) Hasierako Irakaskuntza I zein II graduetan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan fusionatu egin ahal izango dira modulu desberdinetako ikasle-taldeak. Nolanahi ere, Hasierako Irakaskuntza I eta II graduetan, gehienez ere, hiru modulu desberdinetako ikasle-taldeak eratu ahal izango dira, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berriz, maila bereko modulu-talderako ikasleekin sortu ahal izango dira taldeak, gehienez ere.

Modulu desberdinak fusionatzen dituzten taldeetan, honela geratzen da gutxienerako ikasle-kopurua:

– Hasierako Irakaskuntza I: gutxienez 10 ikasle.

– Hasierako Irakaskuntza II eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: gutxienez 12 ikasle.

3.– HHEko zentroan hasierako balorazioaren bidez egiaztatua, oinarrizko prestakuntza, eta hizkuntzaren ezagutza nahikoa duten beste hezkuntza-sistema batzuetatik etorritako pertsonak dagokien graduako moduluan kokatuko dira. Horrela, HHEko ikastetxean prestakuntza-ibilbide baten jarraipena egiteko aukera emango zaie, hala badagokio, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortu arte. Komunikazio-hizkuntzan gutxienerako ezagutzak izatea ezinbestekoa izango da dagokion graduan eta moduluan matrikulatzeko.

Oinarrizko prestakuntza urria eta hizkuntzaren ezagutza eskasa duten beste hezkuntza-sistema batzuetatik etorritako pertsonen kasuan, hasierako Irakaskuntzetan matrikulatu aurretik irakatsi eta gaituko da hizkuntza.

5. artikulua.– Asteko ordutegia ikasleentzat.

1.– Eskolak astelehenetik ostiralera emango dira, arratsaldeko eta gaueko txandetan izan ezik, horiek astelehenetik ostegunera eman ahal izango baitira.

2.– Hasierako Ikaskuntza I graduan taldeko 12 ordu egingo dira astean, hori da eredu-ordutegia. Esparru guztiei buruzko edukiak modu globalizatuan emango dira, eta, hortaz, ez da ordutegi-bereizketarik egingo esparru bakoitzeko.

3.– Hasierako Ikaskuntza II graduan taldeak 12 ordu egingo ditu astean. Ordutegian hiru esparru bereiziko dira (komunikazio-esparrua, gizarte-esparrua eta esparru zientifiko-teknologikoa).

4.– Bigarren Hezkuntzan, astean 15 ordu izango dira eta, hemen ere, aipatutako hiru esparruak bereiziko dira.

5.– Ikasle helduen berezitasuna eta lan-ordutegia kontuan hartuta, hemen adierazitako eredu-ordutegia malgutu ahal izango da.

6.– Eskolek ordubeteko, ordu eta erdiko eta bi orduko iraupena izan dezakete. Ikasgai praktikoe-tan (Teknologia, tailerrak...) eskolak ez dira 3 ordu baino luzeagoak izango. Ordutegien antolaketa I. eranskinean jasotzen da.

7.– Egoera bereziengatik ordutegia aldatu behar bada, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak horretarako baimena eman beharko du, Hezkuntza Ikuskaritzak txostena egin ondoren.

8.– Hezkuntzako sailburuordearen ikasturte-hasierako ebazpenean jasoko dira artikulua honen edukiarekin lotutako berariazko gorabeherak.

6. artikulua.– Ikasleen modalitate presentzialerako sarbidea.

1.– Aurrez aurreko araubidean, helduen ikastetxeetan irakaskuntza arauturako sarbidea eduki ahal izango dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulurik edo baliokiderik eduki ez, eta hamazortzi urtetik gorakoak direnek edo dagokion ikasturte akademikoa hasten den urte naturalean betetzen dituztenek.

2.– Salbuespenez, izena emateko aukera izango dute hamasei urtetik gorakoek edo matrikula egindako urte naturalean hamasei urte betetzen dituztenek, betiere egoera hauetakoren batean daudela frogatzen badute agiri bidez:

a) Norbere konturako zein besteren konturako langile gisa alta emanda egotea.

b) Maila handiko edo errendimendu handiko kirolaria izatea.

c) Hezkuntza-sisteman sartu berri diren atzerriko ikasleak, komunikazio-hizkuntza Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialetako bat ez dutenak.

3.– Aurreko apartatuetan deskribatutako egoeretan, alegatutako arrazoia egiaztatzeko agiriak beharko dira.

4.– Ez dute Bigarren Hezkuntza egiteko Helduen Hezkuntzara sartzerik izango, baldin eta Helduen Hezkuntzako ikastetxe batean matrikula egin nahi duten urtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu-titulua lortzeko ikaskuntza ofizialetan matrikulatuta badaude.

7. artikulua.– Ikasleen urrutiko modalitaterako sarbidea.

1.– Urrutiko modalitatean, Oinarrizko Hezkuntzara sartu ahal izango dira helduen urrutiko hezkuntzako ikastetxeetan:

a) Hamasei urtetik gorakoak, edo matrikula egiten den urte naturalean adin hori betetzen dutenak, betiere agiri bidez egiaztatzen badute derrigorrezko eskolatzeko-aldiaren ondoren ez dutela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortu.

b) Eskola-adinean egon arren, dagokion lurralde-ordezkaritzan behar bezala justifikatutako arrazoiengatik eskolatuta ez daudenak.

2.– Ez dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiteko Helduen Hezkuntzara urrutiko modalitatean sartzerik izango, baldin eta Helduen Hezkuntzako ikastetxe batean matrikula egin nahi duten urtean Bigarren Hezkuntzako Graduatu-titulua lortzeko ikaskuntza ofizialetan matrikulatuta badaude.

3.– Lan-arrazoi berri bat hasteagatik modalitate presentzialeko txanda berera modu jarraituan joan ezin diren pertsonen urrutiko modalitatean matrikulatzeko aukera emango zaie.

8. artikulua.– Helduen hasierako balorazioa.

1.– Nahitaez, ikastetxeko irakasle taldeak heldu bakoitzari hasierako balorazioa egingo dio, aurretiaz dituen jakintzei eta esperientziei lotuta, kontuan hartu gabe jakintza eta esperientzia horiek prestakuntza-ibilbide konbentzionaletatik kanpo eskuratu dituen. Ikaslearen espedientearen idatziko

dira hasierako balorazioaren ondorioz interesdunak egin behar ez dituen moduluak, eta adieraziko da zein diren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua lortzeko egin eta gainditu behar dituen esparruen moduluak eta mailak.

2.– Ikaskuntzen hasierako balorazioak honako hauek aitortuko ditu:

- a) helduek egiaztatzen duten irakaskuntza arautua, III. eranskineko taulan jasotakoaren arabera.
- b) aitorpen ofizialerako ezartzen den gailuaren bidez aitortutako oinarrizko kompetentziak.
- c) ezagutza eta esperientzia profesionalak, bai eta hezkuntza ez-formal eta informala bidez eskuratutakoak ere.
- d) Gutxienez urte akademiko batez utzita egon ondoren, berriz ere ikaskuntza hauetara itzuli nahi dutenei, baldin eta prestakuntza arautu, esperientzia profesional, prestakuntza ez-arautu edo esperientzia ez-profesional berria egiaztatu nahi badute.

Hasierako balorazioa osatzeko, probak egin ahal izango zaizkie ondorengo hauei:

- a) prestakuntza arautua, esperientzia profesionala, prestakuntza ez-arautua edo esperientzia ez-profesionala egiaztatzerik ez dutenei.
- b) III. eranskineko taulak aplikatuta egin zaien balorazioarekin ados ez daudenei.

3.– Ikasleak kasuan kasuko gradu eta moduluan sartzeko bakarrik izango dira baliozkoak emaitzak. Hasierako ebaluazioaren ondorioz, ez da aurreko ikasturteak, graduak edo moduluak gainditu izana aitortuko, ezta inolako ziurtagiririk lortuko ere.

9. artikulua.– Matrikulazioa.

1.– Oinarrizko Hezkuntzako matrikulazioa Helduen Hezkuntzako Ikastetxeetan bi alditan egingo da:

- a) Lehenengo aldia ekainaren bigarren hamabostaldian egingo da ahal dela.
- b) Bigarren aldia otsailaren lehenengo hamabostaldian izango da ahal dela.

2.– Epez kanpoko matrikulen kasu partikularretarako, dagokion organoaren berariazko baimena behar da. Nolanahi ere, salbuespenez, etengabe baimenduta egongo dira asilo politikoa eskatu duten ikasle atzerritarrak (Segurtasun Indarren identifikazio-ziurtagiria eta ostatu hartu duen Eusko Jaurlaritzaren mendeko Harrera Zentroak egindako helbide-ziurtagiria) eta espetxean sartu berri diren ikasleak.

3.– Nahitaez erabili beharrekoak izango dira hezkuntza-administrazioak EAeko ikastetxeetan matrikulak eta ikasleen ebaluazio-prozesua kudeatzeko ezarritako prozedura informatikoak.

4.– Ikasleak ezin izango dira matrikulatu gaindituta edo baliozkotuta dituzten arloetan.

5.– Helduek lauhileko batean egin ahal izango dute matrikula. Nolanahi ere, lehenengo aldirako matrikulatu direnek, 2. lauhilekoan prestakuntzarekin jarraitu nahi badute, ez dute berriz ere matrikulatu beharrik izango bigarren matrikulazio-aldian, eta ikastetxeak jarraitzeko aukera bermatuko die. Modulua osatzen duten arlo guztietan matrikulatuko dira, horietako bat aldeztatik gaindituta dutenean izan ezik.

6.– Matrikula ofizioz baliogabetzea.

Irakaskuntza guztien aurrez aurreko modalitatean, matrikulak indarrean jarraitzeko, ezinbestekoa da prestakuntza-jardueretara joatea.

Ikasleen bertaratzea kontrolatzeko, nahitaezkoa izango da Hezkuntza-arloan eskumena duen sailak horretarako ezarritako aplikazioa erabiltzea.

Ikastetxeko zuzendariak, ikasketaburuak proposatuta, matrikula ofizioz baliogabetzea erabakiko du, baldin eta ikasle bat eskoletara joaten ez bada ondoren ezarritako edo hortik gorako egun-kopuruan:

a) Eskoletara justifikatu gabe huts egiten bada, matrikula-eskubidea galduko da: justifikatu gabe hamar egunez eskoletara huts eginez gero, ikasketaburuak jakinarazpena igorriko dio ikasleari. Jakinarazpen hori bidali eta gero, justifikatu gabe beste bost egunez huts eginez gero, matrikula ofizioz baliogabetuko da, eta horren berri emango zaio ikasleari. Matrikula ofizioz baliogabetzek ez du eragotziko, matrikulazio hori, ikasleak modulu bakoitzeko jakintza-arlo bakoitza gainditzeko dituen lau deialdien barruan kontabilizatzea, agindu honen 15. artikularen 1. zenbakian xedatutakoaren arabera.

b) Justifikatu gabe eskoletara ez joateagatik matrikula baliogabetu zaien ikasleak ezingo dira berriz matrikulatu hurrengo lauhilekoan.

10. artikulua.– Euskara eta Euskal Literatura irakasgaia ematetik salbuesteak.

1.– Ikasleek Euskara eta Euskal Literatura ebaluaziotik salbuesteko eskatu ahal izango dute, alderdi horri buruz Hezkuntza Sailak gainerako irakaskuntza arautuetarako indarrean dituen jarraibideak jasotzen dituzten baldintza berberetan.

2.– Ikasle bati Euskara eta Euskal Literatura ikastetik salbuetsita egotea behar bezala onarzen zaionean, zirkunstantzia hori matrikulako aplikazio informatikoan jasoko da eta, ondoren, espedientean agertuko da. Halaber, ikastetxeak jakinarazi beharko dio ikasleari ebaluaziotik salbuesteak ez duela kentzen eskoletara joateko, ikasteko eta jarraipena egiteko betebeharra.

11. artikulua.– Curriculumua.

1.– Agindu honetan, helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikasgaien ikaskuntzako eta irakaskuntzako prozesuak zehazten dituzten elementuen antolaketari esango zaio curriculumua.

2.– Honako elementu hauek osatzen dute curriculumua:

a) Arlo bakoitzari dagozkion edukiak modu integratuan aplikatzeko oinarrizko konpetentziak edo gaitasunak, pertsona guztiek beren garapen pertsonala lortzeko behar dituzten jarduerak egokiro egitea lortzeko eta arazo konplexuak eraginkortasunez ebazteko, bai eta herritartasun aktiboa, inklusio soziala eta enplegua sustatzeko ere.

b) Irakaskuntza bakoitzaren helburuak, hau da, ikasleek Oinarrizko Hezkuntzako irteera-profilaz jabetzeko eskuratu behar dituzten konpetentziak.

c) Gaikako edukiak, Oinarrizko Hezkuntzako helburuak lortzeko eta oinarrizko konpetentziez jabetzeko adierazpenezko ezaupideak, prozedurak eta jarrerak biltzen dituztenak.

d) Metodologia didaktikoa, hau da, irakasleen jardunbideak, irakasle-lanaren antolakuntza eta orientabide metodologikoak.

3.– Oinarrizko konpetentzia bakoitzaren definizioa eta haren osagaiak, arlo bakoitzeko helburuak, edukiak, ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak 236/2015 Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen Dekretuan ezarritakoak izango dira, eta haren osagarri izango dira dekretu honen II. eranskinean jasotakoak eta ikastetxe bakoitzak bere curriculum-proiektuan ezarritakoak.

4.– Curriculuma moduluka antolatzen da. Curriculumaren antolamenduaren ikuspegitik, modulu didaktikoa da curriculumaren antolamenduko eta ebaluazioko denbora-unitatea; ardatz bereko eta modu koherente eta jarraituan bildutako ikaskuntza multzo batek osatzen du.

5.– Ikastetxeek nahitaezko 12 modulutan banatuko dute arlo bakoitzeko curriculuma. Modulu guztiek, ikastetxearen antolaketa hobea izan dadin, lau hileko iraupena izango dute (irailetik otsailera eta otsailetik ekainera), eta gradu guztietan sartuko dira komunikazio-arloa, gizarte-arloa eta arlo zientifiko-teknologikoa, baita Hasierako Irakaskuntza I graduan ere, non arlo horiek modu globalizatuan irakasten diren.

6.– Hezkuntzako Ikuskaritzako zerbitzuak egiaztatuko du ikastetxe bakoitzaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan benetan antolamendu hori gauzatu dela, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluen ematea behar bezala ikuskatzeko.

12. artikulua.– Ebaluazioaren ezaugarri orokorrak.

1.– Ikasleen ikaskuntza-prozesuaren ebaluazioa indibidualizatua, jarraitua eta hezigarria izango da, eta Lehen Ikaskuntza II eta Bigarren Hezkuntzaren kasuan, irakaskuntza horiek dituzten arloen arabera bereizita.

2.– Aurrez aurreko modalitatean, ikasleen ebaluazio jarria egin ahal izateko, ikasleek modu erregularrean joan behar dute ikasketa-plana osatzen duten arloetarako programatutako eskolera eta jardueretara eta irakaskuntzetarako programatutako jarduera osagarrietara; hala, ezingo dira etengabeko ebaluazioaren bidez kalifikatu % 20tik gorako absentismoa duten ikasleak. Ikastetxeek baldintza horren berri emango diete ikasleei, matrikula egiterakoan.

3.– Halaber, ikastetxeek Antolamendu eta Funtzionamendu Araudian edo antzeko agirian ezarriko dute zer prozedura baliatu behar den etengabeko ebaluazioaren bidez kalifikatu ezin daitezkeen ikasleei edo etengabeko ebaluazioa gainditu ez dutenei azken ebaluazioa egiteko. Etengabeko ebaluazio-prozesuan moduluaren arloren bat gainditu ez duten ikasleek Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo antzeko dokumentuan ezarritakoaren arabera azken ebaluaziorako eskubidea izango dute. Ikastetxeek prozedura horren berri eman beharko diete ikasleei.

4.– Irakasleek curriculumeko hainbat elementu kontuan izanda ebaluatuko dituzte ikasleak. Programazio didaktikoetan zehaztutako ebaluazio-irizpideak eta lorpen-mailaren adierazleak funtsezko erreferenteak izango dira, bai oinarrizko konpetentzien eskuratze-maila, bai helburuen erdieste-maila baloratzeko. Ebaluazio-irizpide horiek, baita kalifikaziokoak ere, ikasleei jakinaraziko zaizkie irakaskuntza-jarduera hasten denean.

5.– Etengabeko ebaluazio-prozesua talde bakoitzeko irakasleek osatutako irakaskuntza-taldeak egingo du, eta taldeko irakasle-tutoreak koordinatuko du, beharrezko bada, ikastetxeko orientatzailearen laguntzaz.

Arlo bakoitzeko kalifikazioa arlo bakoitzeko irakasleak erabakiko du. Gainerako erabakiak taldean hartuko dira, tutoreak koordinatuko irakasle-taldean.

6.– Etengabeko ebaluazioaren prozesuan, ikasleren baten aurrerapena ez bada behar bezalako, hezkuntza indartzeko neurriak ezarriko dira. Ikasturtean noiznahi har daitezke neurri horiek, zailtasunak hauteman bezain laster, ikasleek ezinbesteko ikasketak eskura ditzaten hezkuntza-prozesuan aurrera egiteko.

7.– Etengabeko ebaluazioaren prozesuan moduluaren arlo batzuk gainditu ez dituzten ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazioa egiteko eta ebaluazioa ikastaldia amaitu ondoren egingo da, Antolamendu edo Funtzionamendu Araudian edo antzeko agirian ezarritakoaren arabera.

8.– Etengabeko ebaluazio-prozesuan parte hartu ez duten edo ebaluazio jarraitua egiteko eskubidea galdu duten ikasleek aurrez aurreko eta idatzizko proba bat egin beharko dute modulu bakoitzeko arlo bakoitzean, eta ikasitako arlo osoa hartuko du. Irakaskuntza horiek emateko baimena duen ikastetxe bakoitzean eraturako irakasle-taldea arduratuko da proba horietaz. Proba horietara aurkezteko ez da nahitaezkoa izango aurrez aurreko eskola-orduetara joatea.

9.– Irakasleek ikasleen ikaskuntza ebaluatuko dute, baita irakaskuntza-prozesuak eta irakasleen euren irakaskuntza-praktika ere. Koordinazio didaktikoko sailek ikasturte amaierako memorian jasoko dute ebaluazio horretako emaitzen azterketa; ikasleena zein irakaskuntza-praktikari dagokiona.

10.– Etengabeko ebaluazioaz adierazitakoa aplikatuko zaie urrutiko ikaskuntzei ere, eta horretarako berriaz prestatutako aplikazio, plataforma eta programa informatikoak erabiliko dira, irakaskuntzekiko etengabeko jardura edo lotura frogatzen dutenak. Ikasleek behar bezala informatuta egon behar dute horretaz.

13. artikulua.– Ebaluazioen emaitzak.

1.– Hasierako irakaskuntzak I graduan, modulu bakoitzeko ebaluazioaren emaitzak honela adieraziko dira: Gai (G) edo Ez gai (EG); negatibotzat jotzen da EG kalifikazioa, eta positibotzat, aldiz, G kalifikazioa.

2.– Hasierako Irakaskuntzak II graduan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Graduatu Titulua lortzeko irakaskuntzetan, ebaluazioaren emaitzak kalifikazio kualitatibo hauekin adieraziko dira: Gutxiegi (G), Nahiko (N), Ongi (O), Oso Ongi (OO), Bikain (B); negatibotzat jotzen da Gutxiegi kalifikazioa eta gainerakoak, aldiz, positibotzat. Adierazpen horiek kalifikazio kuantitatiboarekin ere adieraziko dira, dezimalik gabe, batetik hamarrerako eskalan. Honakoak dira baliokidetzak:

– Gutxiegi: 1, 2, 3 edo 4.

– Nahiko: 5.

– Ongi: 6.

– Oso ongi: 7 edo 8.

– Bikain: 9 edo 10.

3.– Hasierako Ikaskuntzak II graduako eta Helduen Bigarren Hezkuntzako arlo bakoitzak kalifikazio bakarra izango du dagokion eskalan.

4.– Helduen Bigarren Hezkuntzan, arloak gainditutzat jotzen dira 5eko kalifikazioa edo hortik gorakoa dutenean, eta ez gainditutzat jotzen dira 5etik beherako kalifikazioa dutenean. Ikasle bat ez bada aurkezten etengabeko ebaluazioan Gutxiegi kalifikazioa duen gaietako baten bati dagokion amaierako ebaluaziora, ebaluazio-dokumentuetan «Ez aurkeztua (EA)» gisa erregistratuko da.

5.– Arloren bat baliozkotuztat edo baliokidetzat jotzen bada III. eranskineko taularen bidez, ikaslea ez da ez matrikulatuko ez kalifikatuko arlo horretan. Notak eta hutsegiteak aplikazioak (B-B) bistaratuko du (baliozkotua edo baliokidea) ebaluazio-aktan dagokion laukian. Baliozkotzeak edo baliokidetasunak dituzten ikasleak aplikazio informatikoan horretarako ezarritako moduan txertatuko dira.

6.– Ikasle batek modulua errepikatzen badu eta moduluko zenbait arlo gaindituta baditu aurreko deialdietan, ez da matrikulatuko ezta kalifikatuko ere gainditutako arloetan. Inolaz ere ezingo dira errepikatu gainditutako arloak. Ebaluazio-akta inprimatzen denean (ADG) bistaratuko da dagokion laukitxoan (Aurreko Deialdietan Gainditua).

7.– Ikasleek aurreko moduluari dagozkion arloak gainditu beharko dituzte, irakasleek hurrengo moduluko arlo homonimoetan kalifikatu ahal izateko. Modulu bateko arlo bat ezin bada kalifikatu ikasleak ez duelako aurreko moduluko alor homonimoetako baten bat gainditu, orduan Notak eta Hutsegiteak aplikazio informatikoan «Ez ebaluatua» laukitxoa hautatuko da dagokion laukian. Ebaluazio-akta inprimatzen denean (EE) bistaratuko da dagokion laukitxoan (Ez ebaluatua).

8.– Alor bat ezin bada kalifikatu ikaslea ez dagoelako alor horretan matrikulatuta eta aurreko puntuak ezin bazaizkio aplikatu, Notak eta Hutsegiteak aplikazio informatikoan dagokion laukitxoa bete gabe utziko da. Ebaluazio-akta inprimatzen denean (--) bistaratuko da dagokion laukitxoan.

9.– Inolako kasutan ezingo da onartu ebaluazioko amaiera-aktetan laukitxo zuririk egotea, aurreko paragrafoetan adierazitako kalifikazioren bat eta bestelako egoeraren bat jaso gabe.

Aipatutako laburdura guztiak IV. eranskineko taulan jasota daude.

14. artikulua.– Mailaz igotzea.

1.– Hasierako Ikaskuntzak I. graduan ikasleek Gai kalifikazioa lortu badute, hurrengo gradura igaroko dira.

2.– Hasierako Ikaskuntzak II. graduan eta Helduen Bigarren Hezkuntzan ikasleak modulu batetik hurrengora igaroko dira, arlo guztiak gainditzen dituztenean edo arlo bakarra dutenean gainditzeke.

Salbuespen gisa, irakasle-taldeak bi arlotan ebaluazio negatiboa duen ikaslea hurrengo modulura igarotzea erabaki ahal izango du; betiere, horietan lortutako kalifikazioa gutxienez lau bada eta irakasle-taldeak uste badu aurreikusitako kompetentziak eskuratu dituela, errekuperatzeko aldeko aukerak dituela eta hurrengo modulura igarotzeak ikaslearen eboluzio akademikoari mesede egingo diola. Erabaki hori behar bezala dokumentatu, eta ikaslearen espedientean jasoko da.

Gainditzeke dauden gaiak zenbatzeari dagokionez, izen bera duten modulu desberdinetako arloak arlo desberdintzat joko dira.

3.– Gainditu gabeko arloren batekin hurrengo modulura igarotzen direnak, arlo horietan ebaluatuko dira.

4.– Errepikatze-kasuan, kalifikazio positiboa duten arloak ezingo dira berriz eman.

5.– Oinarrizko Hezkuntzako eremu guztiak gainditzen dituzte III. graduko IV. moduluan matrikulatutako ikasleei Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua emateko proposamena egingo zaie, agindu honen 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.

15. artikulua.– Deialdiak.

1.– Modalitate presentzian, ikasleek gehienez lau deialdi izango dituzte modulu bakoitzeko jakintza-arlo bakoitza gainditzeko. Zenbaketaren ondorioetarako, modulu bakoitzaren etengabeko ebaluazio-prozesua eta amaierako ebaluazio-prozesua deialdi bakar gisa zenbatuko dira.

2.– Ikasleek ikasturte bakoitzean egiten diren deialdi baten edo bien uko egitea eskatu ahal izango diote ikastetxeko zuzendaritzari, agiri bidez justifikatuta, jakintza-arlo guztietarako edo batzuetarako. Uko egitea eskatzen den eremuaren edo eremuen azken ebaluazioa egin baino hilabete lehenago aurkeztuko da, gutxienez.

3.– Uko egite hori salbuespenezkoa izango da, eta inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean bakarrik emango da:

a) Ikaslearen gaixotasun luzea edo istripua, bi hilabete baino gehiagoko absentzia eragiten duena; kasu horretan, ez du eraginik izango 2. puntuari dagokion denbora-mugak.

b) Lanpostu bat betetzen hastea uko egitea eskatzen duen eremuak esleituta duen ordutegiarekin bateraezina den ordutegi batean.

c) Ikasketan normaltasunez aritzea eragozten duten betebeharrak pertsonal edo familiar justifikatuak.

4.– Ikastetxeko zuzendariak hamar eguneko epean ebatziko du eskaera arrazoituta. Ebazpenaren kopia bat ikaslearen espediente akademikoari dagokion aplikazio informatikoan erantsiko da, interesdunak aurkeztutako dokumentazioarekin batera.

16. artikulua.– Arloak gainditzea, ikasleak eskoletara joaterik ez duenean.

1.– Aurreko moduluan arloren bat gainditzeke duten ikasleak arlo horretan matrikulatuko dira (eskaintzen bada, eta, betiere, hurrengo moduluko arlo homonimoan matrikula egin badute), eta arlo horretarako programatutako eskola-jardueretara joango dira. Ordutegiak bateragarriak ez direlako ikasleek aurreko moduluko jardueretara joaterik ez badute, ikasleek eskuratu gabeko ikaskuntzak berreskuratzeko hezkuntza-errefortzuko programa indibidualizatua egingo dute eta programa horri dagokion ebaluazioa gainditu beharko dute. Ohi bezala kalifikatuko dira arlo horiei dagozkien taldeetako aktetan.

2.– Ordutegia bateratzerik ez dagoenetan, koordinazio didaktikoko sailak edo zentro pribatuetan funtzio horiek dituenak izango du jarduera horiek programatzeko ardura eta, halakorik bada, baita ikasleek hezkuntza-errefortzuko programa indibidualizatua gainditu ahal izateko, hau da, ikasleek gainditu gabeko alorretan ebaluazio positiboa lortzeko proba partzialak prestatzeko ardura ere.

3.– Hezkuntza-errefortzuko jarduerak egiten dituzten irakasleen ardura izango da ikasle horien jarraipena egitea; horrez gain, hurrengo moduluko irakasle bakoitzarekin koordinatzeko ardura ere izango dute. Jarduera horietarako irakasle espezifikorik ez badago, hurrengo alorreko irakasleek egingo dute ikaslearen jarraipena.

4.– Aurreko moduluan gainditzeke utzitako arloen ebaluazioa egiteko ardura kasuan kasuko sailak izango du.

5.– Baldin eta ikastetxean arlo hori emango ez balitz eta hurrengo arlo homonimoan matrikulatu badira, arlo horretan ere matrikulatu beharko dira, eta ordutegien taula aplikatuta horretarako ezartzen den taldea esleituko zaie (EED). Errekuperaziorako, ebaluaziorako eta kalifikaziorako, aurreko paragrafoetan adierazitakoa aplikatuko da. Kalifikazioa aplikazio informatikoan erregistratuko da.

17. artikulua.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua.

Helduen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean jakintza-gai guztiak gainditu dituzten ikasleek, irakaskuntza horietako oinarrizko konpetentziak eta helburuak eskuratu dituztenez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortuko dute.

18. artikulua.– Batez besteko nota.

1.– Helduen Oinarrizko Hezkuntzako edo gradu desberdinetako batez besteko nota kalkulatzeko, III. graduako 1. eta 2. maila dagozkien moduluen arloetan lortutako notak bakarrik hartuko dira kontuan. Arlo batzuk baliozkotzen badira, etaparen azken kalifikazioak ez ditu kontuan hartuko baliozkotutako arloetan lortutako kalifikazioak; aitzitik, helduen hezkuntzan bi mailatan egindako eta gainditutako arloen batez besteko aritmetikoa izango da.

2.– III. gradua amaitzean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko proposatutako ikasleei historia akademikoa emango zaie.

19. artikulua.– Ebaluazio-saioak.

1.– Ebaluazio-saioak jarraipeneko saio partzialak edo kalifikazioko amaierako saioak izan daitezke.

2.– Ikasle-talde berari eskolak ematen dizkion irakasleek egiten dituzten bilerak dira ebaluazio-saioak. Bilera horiek irakasle-tutoreak koordinatzen ditu, ikastetxeko orientatzailearen laguntzaz, ikasleen ikaskuntza baloratzeko, hain zuzen, oinarrizko konpetentzien, edukien eta lortutako helburuen eskuratzeko-mailari dagokionez.

3.– Talde bakoitzeko irakasle-tutoreak ebaluazio-saioetako akta idatziko du, eta saio horietatik sortzen den dokumentazioa bete eta zainduko du, ikasleek eman dituzten arloetan lortutako kalifikazio partzialekin. Azken ebaluazioan lortutako kalifikazioak sartuko dira aplikazio informatikoan, Hezkuntza-arloan eskumena duen sailak horretarako ezarritako aplikazioan, eta hortik sortuko dira dagozkion azken kalifikazioen aktak.

4.– Ebaluazio-saioetan, egindako ikaskuntza-prozesuaren eta egindako jardueren emaitzari buruz nahiz gai bakoitzean lortutako kalifikazioei buruz ikasle bakoitzari zer informazio jakinaraziko zaion adostuko da.

5.– Aurrez aurreko araubidean, modulu bakoitzean ebaluazio partzialeko saio bat eta azken ebaluazioko beste bat egingo da talde bakoitzeko, gutxienez.

6.– Azken ebaluazioaren saioan, modulu bakoitzeko arlo guztien amaierako kalifikazioa formulatuko da. Era berean, ikasleen ebaluazio-dokumentuetan jasoko dira egindako moduluen ezagutza-esparruetan eta, hala badagokio, egiteke dagoen eremuan lortutako kalifikazioak, betiere agindu honen 13. artikuluan ezarritakoa betez.

7.– Saio horretan, hurrengo modulura igarotzeko eta titulua lortzeko erabakiak hartuko dira, eta horiek ere ebaluazio-dokumentuetan idatziko dira.

20. artikulua.– Ebaluazio-agiri ofizialak.

1.– Irakaskuntza horietarako ebaluazio-dokumentu ofizialak hauek dira: espediente akademikoa, ebaluazio-aktak, historia akademikoa eta lekualdatzeagatik txosten pertsonala. Kasuaren arabera, agiriak inprimatu egin ahal izango dira edo sailak erabakitako aplikazio informatikoan gordeko dira soilik. Inprimatutako agiriak sinadura bidez kautotzea nahitaezkoa denetan, irakasleen edo kasuan kasu erabakitako profesionalen autografoen bidez egingo da.

2.– Organo eskudunak ezarriko ditu ebaluazio-agiri bakoitzaren ereduak, edukia eta diseinuak, eta saileko aplikazio informatikoetan jasoko dira.

21. artikulua.– Espediente akademikoa.

1.– Ikasleen espediente akademikoa irakaskuntza horietan lortutako ebaluazioaren emaitzak, mailaz igotzeko proposamenak eta titulazioa, eta, hala badagokio, aniztasunari erantzuteko hartutako neurriak jasotzen dituen dokumentu ofiziala da. Aplikazio informatikoan irekiko da, ikaslea ikasketak egiten hasten denean.

2.– Espediente akademikoari digitalki erantsiko zaizkio, hala badagokio, txosten psikopedagogikoak edo bestelakoak –ikastetxeko orientatzailearen aholkularitzaz egindakoak–, uko egiteko eskaera eta haren ebazpena, eta ikaslearen bizitza akademikoan eragina duen dokumentazio ofizial guztia.

3.– Espediente akademikoak zaintzea eta, hala dagokionean, artxibatzea ikastetxeetako zuzendaritzaren erantzukizuna da.

22. artikulua.– Ebaluazio-aktak.

1.– Ebaluazio-aktak modulu bakoitzaren amaieran jaulkitzen diren dokumentu ofizialak dira. Amaierako ebaluazio bakoitzaren ondoren betetzen dira.

2.– Ebaluazio-aktetan datu hauek guztiak jasoko dira: taldea osatzen duten ikasleen izenen zerrenda, modulu bakoitzeko arloen izen zehatza (Hasierako Ikaskuntzak I. graduan izan ezik), ikasleek lortutako kalifikazioak, eta hurrengo modulura igarotzeko erabakia. III. graduko IV. modulu luan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu-titulua jaulkitzeko proposamena jasoko da.

3.– Ebaluazio-aktak agindu honen 20.1 artikuluan zehaztu bezala sinatuko dira.

4.– Aurreko apartatuetan aipatzen diren ebaluazio-aktetan idatzitako emaitzak dagokien espediente eta historia akademikoetan agertuko dira automatikoki.

5.– Aktek ez dute baliorik izango zuzenketak edo zirrimarrak badituzte. Testuari aldaketa bat egin behar zaion kasu guztietan, diligentziak sortzeko aplikazioaren tresna baliatuko da. Espedientean eta historia akademikoan jasota geratuko dira automatikoki.

6.– Ikastetxeei dagokie ebaluazio-aktak zaintzea eta artxibatzea. Haiek edukiko dute eskatzen diren ziurtagiriak egiteko eskumena. Ziurtagiriak ez baditu sinadura digitalak, idazkariak sinatuko ditu ziurtagiriok, eta ikastetxeko zuzendariak ikus-onetsiko.

23. artikulua.– Historia akademikoa.

1.– Oinarrizko ebaluazio dokumentutzat jotzen den historia akademikoa ebaluazioko emaitzak eta ikasleen aurrerapen akademikoari buruzko erabakiak jasotzen dituen dokumentu ofiziala da, eta egindako ikasketen egiaztagiria.

2.– Historia akademikoa aplikazio bidez sortuko da, eta ikasleei emango zaie dagozkien irakaskuntzak amaitzen dituztenean.

24. artikulua.– Ikastetzez aldatzea.

1.– Ikaslea beste autonomia-erkidego batetik datorrenean, matrikulazioa behin betikoa izango da, soilik baldin eta historia akademikoa behar bezala beteta jasotzen bada. Dokumentazioa jasotzen duen zentroaren ardura izango da historia akademikoa eta ikastetxe-aldaketaren txosten

pertsonala zaintzea. Horrez gain, ikaslearen espediente akademikoa ireki beharko du aplikazio informatikoan, eta hari erantsiko dio formatu digitalean jasotako historia akademikoa.

2.– Ikasle bat EAetik kanpo dagoen ikastetxe batera aldatzen bada bere ikasketekin jarraitzeko, jatorrizko ikastetxeak, xede-ikastetxearen eskariz eta ahalik eta azkarren, aplikazioak sortzen duen historia akademikoa igorriko dio xede-ikastetxeari, aplikazio informatikotik lortutakoa.

3.– Ikaslea ikasturtea amaitu baino lehen beste zentro batera lekualdatzen bada ikasketekin jarraitzeko, eta zentro hori EAetik kanpo badago, historia akademikoaz gain, jatorrizko zentroak ikastetxe-aldaketaren txosten pertsonala igorriko du. Txosten horretan ikasleak ikaskuntza-prozesuarekin jarraitzeko beharrezkoa den informazioa egongo da, eta bertan agertuko dira ebaluazio partzialen emaitzak, halakorik egin bada.

Ziurtagiri hori tutoreak egingo du, orientatzailearen laguntzaz eta irakasgaietako irakasleek emandako datuak kontuan hartuta, eta zuzendariaren oniritzia izango du. Ikastetxe-aldaketaren txosten pertsonalak, gutxienez, elementu hauek izango ditu:

- a) Jatorrizko zentroa eta ikaslea identifikatzeko datuak.
- b) Egiten ari den modulua eta arloak.
- c) Gainditu gabeko gaia, halakorik balego.
- d) Kalifikazio partzialak, aldi horretan eman izan balira.
- e) Ikaslearen aurrerapen orokorrari buruz egokitzen jotzen diren ohar guztiak.

4.– Ikastetxe-aldaketaren txosten pertsonala historia akademikoarekin batera bidaliko da xede-ikastetxera (historia akademikoa EAetik kanpoko zentroetara bakarrik).

25. artikulua.– Ebaluazioari buruzko informazioa.

Ikaslearen eskola-errendimendua erabateko objektibotasun-irizpideen arabera baloratzeko eskubidea bermatzeko helburuarekin, ikaskuntzak, hurrengo modulurako igarotzeak eta titulazioak ebaluatzeko aplikatuko diren irizpide orokorrak publiko egin beharko dira. Koordinazio didaktikoko sailek, irakasleen bidez, eskola-aldiaren hasieran arloak gainditzeko beharrezkoak diren gutxieneko edukiei buruz, errekupeazio-prozedurei buruz eta aplikatu daitezkeen ebaluazio- nahiz prozedura-irizpideei buruz informatuko dute, 2008ko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-zentroetako ikasleen eskubideei eta betebeharrari buruzkoan, aurreikusitakoaren arabera. Zentro bakoitzeko ikasketako buruak izango du informazio-prozesu hori koordinatzeko eta egiaztatze ardua.

26. artikulua.– Ikasturtean zehar eta amaierako ebaluazioaren ondoren ikasleak informatzea.

1.– Aldian-aldian, eta kasu guztietan, ebaluazio-saio bakoitzaren ondoren eta horrela jarduteko zirkunstantziak daudenean, tutoreak ikasleei jakinaraziko dizkie probetxu akademikoa eta hezkuntza-prozesuaren martxa. Horretarako, etengabeko ebaluazio-prozesuan jasotako informazio erabiliko da.

2.– Amaierako ebaluazioaren ondoren, ikasleari idatziz jakinaraziko zaio informazio hori, eta, gutxienez, alderdi hauek adieraziko dira:

- a) Ikasleak egindako hainbat gaitan lortu dituen kalifikazioak.
- b) Hurrengo modulura igarotzen den ala ez.

3.– Tutoreak eta hainbat arlo edo modulutako irakasleak ikasleekin erraz komunikatuko dira ikaskuntza-prozesuari buruzko balorazioei dagokienez, egokiak diren argibideak emateko helburuarekin.

27. artikulua.– Ebaluazio-emaitzei buruzko erreklamazioa ikastetxearen beraren instantzien aurrean.

Zentroko instantzien aurrean erreklamazioak egiteko prozedura Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Araudian edo antzeko agirian xedatutakoari egokituko zaio. Prozedura hori ez badago jasota aipatutako agiri horretan, orduan, subsidiarioki, arau hauek aplikatuko dira:

a) Edozein kalifikazio publiko egin eta jakitera eman ostean, ikasleek 48 orduko epea izango dute dena delako kalifikazioaren gaineko erreklamazio arrazoituak eta argudiatuak aurkezteko. Horretarako, zuzendu ondoren, bermatuta izango dute, aldez aurretik eskatuta, azken kalifikazioan eragina izan behar duten lan, ariketa eta proba guztietarako sarbidea.

b) Kalifikazio partzial baten aurkako edozein erreklamazio tartean den irakasleari aurkeztu beharko zaio, eta irakasle horrek 48 orduko epea izango du erantzuteko.

c) Amaierako kalifikazioen erreklamazioak zentroko zuzendariari aurkeztu beharko zaizkio, idatziz, 48 orduko epean.

d) Zuzendariak dagokion koordinazio didaktikoko sailari edo zentro pribatuetan funtzio horiek dituenari aurkeztuko dio erreklamazioa, eta sail edo pertsona horrek erreklamazioari buruzko txosten arrazoitu bat egin eta igorri beharko du. Txosten horrek honako hauei buruzkoak jaso beharko ditu: ea probak programatutako edukiei eta arloko helburuei erantzuten dien, eta ea ezarritako ebaluazio- eta kalifikazio-irizpideei (sailak argitara emandakoei) erantzuten dien. Aipatutako erreklamazioa onartzen bada, saileko buruak edo zentro pribatuetan funtzio horiek dituenak zentroko zuzendariari dagokion ebazpena proposatuko dio, eta kalifikazio berria aktetan eta gainerako dokumentuetan jaso beharko da, arauzko prozeduraren bidez.

28. artikulua.– Erreklamazioak zentrotik kanpoko instantzien aurrean.

Ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxean barne-erreklamazioko prozesua amaitu ondoren, moduluen amaierako kalifikazioen gaineko gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio lurralde-ordezkaritari. Honela jokatu beharko da:

1.– Ikaslea ez badago ados ikastetxean egindako erreklamazioaren ebazpenarekin, gora jotzeko errekurtsua aurkez diezaioke lurralde-ordezkaritari, hilabeteko epean.

2.– Lurralde-ordezkariek gora jotzeko errekurtsuari buruzko ebazpena emango du 3 hilabeteko epean, Hezkuntza Ikuskaritzak txosten arrazoitua egin ondoren. Horretarako, erreklamaturako eremuko irakaskuntza esleituta duen irakaskuntza-espezialitateko irakasle baten edo gehiagoren aholkularitza izan ahal izango du.

3.– Lurralde-ordezkariek gora jotzeko errekurtsua ebazteak amaiera emango dio administrazio-bideari.

29. artikulua.– Programazioak.

1.– Koordinazio didaktikoko sailek, irakasleen bidez, programazio didaktikoak egingo dituzte.

2.– Programazio horiek publikoak izango dira, eta ikastetxean artxibatuko dira, ikasketaburuak gainbegiratuta.

30. artikulua.– Hezkuntzako Ikuskaritzak ebaluazio-prozesua ikuskatzea eta horri buruz aholkatzea.

Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio bai ikasleen bai irakaskuntzaren ebaluazio-prozesuan aholku ematea eta prozesua gainbegiratzea, bai eta ebaluazioa hobetzeko neurriak proposatzea ere. Horretarako, ikuskariak zuzendaritza-taldearekin, irakasleekin eta ebaluazioaren gainerako arduradunekin bilduko dira, eta arreta berezia emango diote ikasleen ebaluazioaren emaitzak baloratu eta aztertzeari eta dekretu honetan xedatutakoa betetzeari.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Ikasleen datu pertsonalak.

Ikasleen datu pertsonalak lortzeari, datu horiek zentro batek beste bati lagatzeari eta datu horien segurtasunari eta konfidentziasunari dagokienez, datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen legedia beteko da, bai eta, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezartzen dena ere.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Ikasle adingabeak.

Indarrean dagoen legediaren babesean irakaskuntza horiek egiten ari diren ikasle adingabeen kasuan, agindu honen 18.2, 19.4, 26, 27 eta 28. artikuluetan xedatutakoa familietara edo legezko tutoretara hedatuko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira agindu honetan aurreikusitakoarekin bateraezinak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, bereziki, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2006ko uztailaren 20ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko urrutiko oinarrizko hezkuntzaren alderdi batzuk arautzen dituena eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko urriaren 31ko Agindua, Helduen Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum auzi zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hartuko du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 20a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

I. ERANSKINA

IKASTAROAREN ORDU-BANAKETA

Irakaskuntzak	Lauhilekoak	Asteak	Orduak astean	Orduak, guztira
Hasierako Irakaskuntzak I	4 lauhileko	64 aste	12 ordu astean	768 ordu
Hasierako Irakaskuntzak II	4 lauhileko	64 aste	12 ordu astean	768 ordu
DBH	4 lauhileko	64 aste	15 ordu astean	960 ordu

ASTEKO ORDU-BANAKETA

	Hasierako irakaskuntzak I	Hasierako irakaskuntzak II	DBH
Arloak	Orduak	Erreferentziako ordutegia	Erreferentziako ordutegia
Komunikazioa		4	5
Gizartea		2	3
Zientzia eta teknologia		4	4
Nahierara banatzeko orduak		2	3
GUZTIRA	12	12	15

II. ERANSKINA

CURRICULUMAK

KOMUNIKAZIO-ARLOA

1.– SARRERA

Helduen hezkuntzaren testuinguruan, komunikazio-arloaren xedea da giza jardueraren egoera guztietan parte hartzeko behar diren komunikazio-konpetentziak eskuratzea. Ikasgelara eramandako konpetentzien ikuspegiak aldaketa metodologiko bat irudikatzen du: eguneroko bizitzako arazoak ezagutzarekin lotu behar dira. Adierazpen-, prozedura- eta jarrera-edukiak bizitzako arazoak konpontzeko baliabidetzat hartzea dakar horrek; azken batean, helduaroan testuinguru pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan bizi diren esperientziei lotutako bestelako komunikazio-egoerei aplikatzeko baliabidetzat.

Zehazki, hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentziak honako osagai hauek ditu:

1) Hainbat esparrutako hitzezko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak, analogikoak zein digitalak, ulertzea eta jarrera kritikoz baloratzea xede pertsonalak, sozialak edo akademikoak erdiesteko.

2) Esparru pertsonal, sozial edo akademikoetako hitzezko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak sortzea, komunikazio-premiei eraginkortasunez erantzuteko.

3) Hitzezko eta idatzizko testuak sortzean zein ulertzean hizkuntzen erabilera-arauei eta sistemei buruzko jakintza aplikatzea, egoki eta eraginkortasunez komunikatzeko.

4) Literatur testuak interpretatzea eta baloratzea, esanahia modu partekatuan eraikita, mundua ulertzeko, literatur ondarea banako eta taldeko esperientzia sinbolizatze modu gisa baloratze, norberaren kultur nortasuna eraikitze eta inguruko kultur nortasuna eta aniztasuna errespetatzeko eta sentsibiltate estetikoa garatzeko.

5) Gure gizartean dagoen hizkuntza- eta kultura-aniztasuna onartzea eta baloratzea, aniztasun horrekiko jarrera positiboa garatzeko.

Konpetentzia honen osagaiak dira, helduen irakaskuntzaren testuinguruan, haren ezaugarriak bideratzen dituztenak. Beraz, gizarte-jarduerako esparru garrantzitsuetan hitz egin, elkarriketak izan, idatzi, entzun eta irakurtzeko trebetasunak eta trebetasun horiek garatzen laguntzen duten estrategiak dira konpetentzia honen ardatz. Era berean, hala literatur hezkuntza garatzera nola irakurtzeko ohitura sendotzera bideratutako edukiak ere konpetentzia honen parte dira. Horrekin batera, garrantzitsua da teknologia digitalek sustatutako egoera komunikatibo berrietan parte hartzea, baita horietan eraginkortasunez komunikatzeko berriazko trebetasunak garatzea ere.

Komunikazio-arloak Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Euskal Literatura eta Atzerriko Hizkuntza(k) hizkuntza-arloen proposamen integratu bat aurkezten du, behintzat planteamendu metodologiko-komunikatibo komun bat bultzatzeko xedez. Halaber, erreferentetzat hartzen ditu Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Euskal Literatura eta Atzerriko hizkuntza ikasgaien curriculumeko oinarritzko alderdiak, hala ezartzen baitu Oinarritzko Hezkuntzaren 236/2015 Dekretuaren IV. xedapen gehigarriak, Helduen Hezkuntzari buruzkoak.

Mundua gero eta elkarlotuagoa dagoenez, pertsonak gero eta gehiago mugitzen direnez, helduen ikastetxeetan ikasle migrante asko daudela ikusi da. Ikastetxe horiek, hain zuzen, kultura

eta belaunaldi desberdinen arteko topagune pribilegiatu dira, eta hor biltzen diren gizon-ema-kumeek hizkuntzetan tresna inklusiboak aurki ditzakete ez diskriminatzeko, bizikidetzarako eta elkarrizketarako. Ikasle helduen gorabeherak –askotan lana, familia-erantzukizunak, zenbaitetan herrialdera iritsi berria izatea...– prestakuntza-sistema malgua eskatzen dute, ikasle horien egoera eta premiak kontuan hartuko dituen eta ikaskuntza autonomo eta autorregulatua bultzatuko duena, ikaskuntza esanguratsuekin eta eguneroko bizitzan aplikatzeko modukoekin. Horregatik, EAEko hizkuntza ofizialak ikasi eta erabiltzeko behar diren ikaskuntzak lortzeko erronkari helburu bat gehitu behar zaio: irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan hizkuntza-aniztasuna eta kulturarte-kotasuna txertatzea eta baloratzea.

Konpetentzien arabeko curriculumaren ikuspegi metodologikoak ekintza du erdigune; hortaz, komunikazio-trukeetarako behar diren prozedura, jarrera eta kontzeptuen erabilera nagusitu behar da komunikazio-arloaren ikaskuntza-irakaskuntza proposamenetan. Irakasleak bideratzaile-rola betetzen du, funtsean, eta ikasleak, berriz, zeregin aktiboa du. Ondorioz, prozedurazko edukiak lehenetsi behar dira, eta ez adierazpenezko jakintza hutsa.

Hizkuntzak ikasteko prozesuak oinarrizko bost trebetasunetan (hitz egin, entzun, elkarrizketak izan, irakurri eta idatzi) oinarritu behar dira, eta ez trebetasun batzuetan bakarrik; hori bultzatzea ezinbestekoa da, hasierako ikaskuntzen lehenengo mailatik hasita. Lehenengo moduluetatik trebetasun horiek landuz, indartu egiten da ikasleen ahalduntze- eta autonomia-prozesua, eta hobetu egiten dira ikaskuntza-estrategiak. Komeni da, gainera, ikasleen arteko elkarlana sustatzea eta zeregin edo proiektu bakoitzari egokitutako lan-giroa izatea. Komunikazio-konpetentzia garrantu, helduek mundua interpretatzeko eta sentimendu zein ideiak adierazteko tresnak eskuratzen dituzte. Beraz, hitz egin, entzun, elkarrizketak izan, irakurri eta idaztea giltzarri dira emantzipazio pertsonalerako, ikasten ikasteko, autorregulatzeko eta gizarteko eremu guztietan parte hartzeko eta interakzioan jarduteko.

Ikasleek, gradu eta modulu guztietan, askotariko testuak landuko dituzte, komunikazio-egoera desberdinetan eta praktika diskurtsibo pluraletan sortutakoak, hain zuzen, helduen lan-arloan zein arlo pertsonal, sozial, akademikoan. Garrantzitsua da, beraz, ikasle helduen ikuspegia txertatzea eta haien kultura- eta hizkuntza-aniztasuna islatzea, ikastetxe edo ikasgela berean berdinen artean elkarbizitza eta ikasiz diharduten belaunaldien aberastasuna erakustea...

Ikaskuntza horien mailek aurrera egiten duten neurrian, praktika diskurtsibo konplexuagoak hautatuko dira, eta komunikazio-egoera motak ugarituko. Egiten diren lan-proposamenek ekimena, autonomia eta elkarlana bultzatu behar dute bai informazioa bilatu eta hautatzeko prozesuetan, bai irakurketa-estrategietan, bai eta ulermena, mintzamina eta idazmina lantzeko bestelako jardueretan ere. Planteamendu honek, horrenbestez, atazen arabera lan egitea dakar, komunikazio-proiektuka, belaunaldiak nahastuta, taldeka... oinarrizko konpetentziak garatzeko xedez. Proiektuen eta atazen arabera lan hori funtsezkoa da metodologia aktibo eta parte-hartzaile bat izateko, eta lagungarria da sormena, ekintzailtza, autonomia, lankidetzeta eta autorregulazioa sustatzeko, konpetentzien garapenaren beste alderdi batzuen artean.

Irakaskuntza planifikatzen eta ebaluatzen den prozesu bat da. Prozesu horretan, proposatutako ekintzek arlo jakin batean hautatutako konpetentziak garatuko dituzte, eta ezarritako helburuak lortuko. Helburuek modu integratuan zehaztuko dute hizkuntza-arloko lanaren xedea, eta helburuen arabera bideratuko dira ikaskuntza-irakaskuntza jarduerak; esaterako, informazio bat hautatu, testu bat laburtu, ideiak edo sentimenduak adierazi, debate batean parte hartu, entzuten jakin, irakurtzeko autonomia garatu, hizkuntza-estereotipoak saihestu, behar bezala hitz egin, irakurri gozatu... Hizkuntza-ikaskuntza horietako asko komunak dira hizkuntza guztietan, eta hiztun elebidun edo eleaniztunek hizkuntza batetik bestera transferitu ditzakete.

Hiztunek parte hartzen duten inguruneetan batera daude hizkuntzak, eta hiztunek erabakitzen dute beren hizkuntza-errepertorioko zer hizkuntza erabiliko duten komunikazio-egoera bakoitzean. Justifikatuta dago, beraz, hizkuntzen ikuspegi integratua; hizkuntza bakoitzaren ezaugarri propioak landu behar dira batetik, eta, bestetik, batera landu hizkuntza guztiek dituzten alderdi komunak; betiere, hizkuntza bakoitza ongi erabiltzen saiatuz.

Azkenik, ikasleen ebaluazioaren funtzioa da beren ikaskuntza-prozesuari eta -emaitzei buruz informazio garrantzitsua ematea, kontuan izanik hasierako ebaluazioa, prestakuntza-ebaluazioa eta ebaluazio batutzailea. Ebaluazioak, halaber, helduen neurriko proposamen egokiak eta askotariko ebaluazio-irizpideak ezarri behar ditu, ikasleek ahalik eta gehien ikas dezaten lortzeko. Gainera, ikasle bakoitzak landutako konpetentziak komunikazio-egoera berrietan aplikatzeko duen gaitasuna erakutsi behar dute.

2.– HELBURUAK

1) Gero eta autonomia handiagoz ulertzea hitzeko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak, ikasleen ezaugarri eta interesetara egokituak, mota eta erabilera-arlo desberdinetakoak, ohiko zein ezohiko komunikazio-egoeretakoak, eta, bakarka zein taldeka, jarrera kritikoz interpretatzea, komunikazio-egoera bakoitzari eraginkortasunez erantzuteko.

2) Ahoz zein idatziz, koherentziaz eta zuzen adieraztea eta elkarrekintzan jardutea, eraginkortasunez eta gero eta autonomia handiagoz erantzuteko komunikazio-helburu bakoitzari, jarduera pertsonal, akademiko, sozial zein lanekoetan.

3) Banaka zein taldeka, gogoeta egitea komunikazio-arloko hizkuntza desberdinen sistemez eta erabilera-arauez, testuak ulertzeko eta sortzeko prozeduren inguruan, hizkuntza bakoitzaren erabilera egokia, koherentea eta zuzena bultzatzeko eta hobetzeko, hizkuntza batetik bestera transferitu daitezkeen ezagutzak eraginkortasunez erabiliz.

4) Euskadiko eleaniztasuna eta kultur aniztasuna ezagutzea eta gizartearen aberastasun gisa interpretatzea, hizkuntzak jatorri, hizkuntza eta kultura desberdinetako jendeak elkar ulertzeko tresnatzat hartuz, eta, hala, hizkuntzekiko jarrera positiboa garatzeko eta hizkuntza-aniztasuna baloratzeko.

5) Banaka zein taldeka, hizkuntzen erabilera sozialez gogoeta egitea, aurreiritzi sexistek, klaxistek eta arrazistek dakartzaten estereotipo linguistikoak ekiditeko, testuinguru sozial eta kultural bakoitzean komunikatzeko estrategia eraginkor eta egokiak hartuta.

6) Irakurtzeko autonomia garatzea, literatur tradizioko lagin garrantzitsuak, arlo askotako testuak eta norberak hautatutako testuak irakurriz, hartara norberak irakurtzeko dituen gustuak eta interesak zabaltzeko eta norberaren eta munduaren ezagutzan sakontzeko.

7) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoz erabiltzea, banaka zein taldeka, informazioa lortzeko eta hautatzeko, komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko.

8) Literatur testuak ulertzea eta interpretatzea –zatiak edo testu osoak–, banaka zein taldeka, literatur generoen konbentzioei buruzko oinarrizko ezagutza baliatuta, literatur ondarea esperientzia indibidual zein kolektiboa sinbolizatzen modu gisa baloratzeko.

9) Norberaren ikaskuntza-prozesuak eta komunikazio-estrategiak ezagutu eta haiei buruz hausnartzea, hizkuntzak ikasteko norberak duen gaitasunaren inguruan konfiantzazko jarrera eta espektatiba altuak indartuz, hartara autonomia, autorregulazioa eta ikaskuntza linguistikoak sustatuko baitira.

3.– EDUKI MULTZOAK

EDUKI MULTZOEN EZAUGARRIAK:

Eduki-multzoetan modu sintetikoan azaltzen dira hizkuntza-arloko edukiak, baina ez da zehazten ikaskuntza-jarduerak ikasgelan izango duten hurrenkera eta antolaketa. Horregatik, programazioak egitean eta jarduera-sekuentziak ikasgelara eramatean, beharrezkoa da zenbait multzotako edukiak integratzea, inolaz ere ahaztu gabe arlo honetako lanaren oinarria prozedura- eta jarrera-edukiek osatzen dutela, eta adierazpen-edukiak aurreko horien zerbitzura daudela.

Helduen Hezkuntzari dagozkion eduki horiek gai-multzo hauetan biltzen dira:

1. MULTZOA. Oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak, arlo guztiei dagozkienak.
2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrizketan aritzea.
3. MULTZOA. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.
4. MULTZOA. Hizkuntzaren dimentsio soziala eta hari buruzko gogoeta.
5. MULTZOA. Literatur hezkuntza.

1. multzoan –ikaskuntza hauetako arlo guztietan berbera–, oinarrizko zehar-kompetentziak garatzeko ezinbesteko edukiak biltzen dira, arlo guztietan eta hiru graduetan landu eta ebaluatu beharrekoak.

2. eta 3. multzoetan, jarduera sozialaren arlo garrantzitsuetan hitz egin, idatzi, entzun eta irakurtzeko trebetasunak eta estrategiak biltzen dira, eta horiek dira komunikazio-gaitasunaren curriculumaren oinarri. Ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak oso garrantzitsuak dira, bai ikasleen komunikazio-gaitasuna erabat garatzeko, bai ikasgelan interakzioan jarduteko eta esanahia negoziatzeko.

4. multzoan biltzen diren edukiek aztertzen dute hizkuntzek sistema gisa duten funtzionamendua, hizkuntzen erabilera-arauak, hizkuntzen arteko harremanak eta hizkuntzen eta hiztunen artekoak. Hizkuntza-aniztasunarekin eta hizkuntzen arteko harremanekin lotutako edukiak biltzen ditu, bai eta hizkuntza-sistema osatzen duten elementuei eta horien erabilera mugatzen duten araei buruzko hausnarketarekin lotutako edukiak ere.

5. multzoan, literatur hezkuntzarekin lotutako edukiak biltzen dira. Irakaskuntza hauetan, helburu nagusia da literatura gozamen-iturritzat hartzea eta irakurtzeko ohitura hartzea.

Azkenik, hitz egitea eta entzutea, irakurtzea eta idaztea bezalaxe, elkarri lotutako jarduerak dira, eta, beraz, komeni da hizkuntzak ikasteko jardueren artean sartzea hizkuntza-erabileraren hiru alderdiak: gogoeta, ulermena eta sormena. Halaber, azpimarratu behar da beharrezkoa dela zentroak irakurketa-plana prestatzea, irakurketari helburu desberdinekin heltzeko, maila guztietan eta ikasle heldu guztiekin.

Gainera, kontuan izan behar da Hasierako Irakaskuntzak I eta II graduetan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (III. graduan) irizpide hauetan oinarritzen dela ikaskuntzen mailaketa: praktika diskurtsiboen gertutasuna handiagoa ala txikiagoa izatea ikasleen esperientzia linguistiko eta kulturalarekiko, eta testuen konplexutasuna handiagoa ala txikiagoa izatea barne-antolaketari dagokionez.

1. MULTZOA. Eduki komunak

Eremu guztietan komunak diren zeharkako oinarrizko kompetentziekin lotutako edukiak.

Eduki-multzo honetan biltzen diren prozedurek eta jarrerak xede hauek dituzte:

- Informazioa bilatzea, hautatzea, biltegitratzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatu, sailkatu, sekuentziatu, aztertu eta sintetizatu), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatu, definitu, laburbildu, azaldu...)
- Informazioa baloratzea eta adieraztea (argudiatu, justifikatu...)
- Ideiak sortzea, hautatzea eta adieraztea.
- Ideia, zeregin eta proiektuen plangintza eta bideragarritasuna aztertzea.
- Planifikatutakoa egikaritzea eta, beharrezko bada, doitzea.
- Planifikatu eta egin dena ebaluatzea eta hobekuntza-proposamenak egitea.
- Lortutako emaitza komunikatzea.
- Harremanen garapena eta pertsona arteko komunikazioa (enpatia eta asertibitatea).
- Lankidetzeta eta elkarlana, taldean ikasteko zereginetan.
- Giza eskubideak eta konbentzio sozialak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Gorputz-dimentsioaren autorregulazioa.
- Emozioen autorregulazioa.
- Estilo kognitiboaren autorregulazioa.
- Hitzeko zein hitzik gabeko komunikazioaren eta komunikazio digitalaren autorregulazioa.
- Portaera moralaren autorregulazioa.
- Motibazioaren eta borondatearen autorregulazioa.

2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrizketan aritzea

• Gaur egungo ahozko zein ikus-entzunezko testuak ulertzea, euskarri desberdinetan, ikasleen interesei lotutakoak (esparru pertsonal, sozial akademiko eta lan-mundukoak), eta arreta berezia jarritz narrazio-, deskribapen-, azalpen-, elkarrizketa- eta argudio-testuei eta haien generoei.

• Igorlearen intenzionalitatea zein den ezagutzea landutako testuetan; adibidez, debateak, aurkezpenak, dialogoak eta elkarrizketak, telefono-elkarrizketak, kolokioak, lan-elkarrizketak, albisteak, dokumentalak, bizipen-kontakizunak, gertaerak edo gertakariak, publizitate-iragarkiak, abestiak, abisuak, arauak, jarraibideak, azalpenak...

• Ahozko testu koherenteak sortzea, askotariko helburua eta konplexutasun maila desberdina dutenak, euskarri desberdinetan, arlo pertsonal, sozial, akademiko edo lanekoak, ikasleen interesei lotutakoak eta ikuspuntu bat baino gehiago agertzen dutenak eguneroko gaiei buruz edo interesei lotutako egunerokotasun sozial, politiko edo kulturalari buruz.

- Informazioaren plangintza eta bilaketa askotariko iturrietan, ahozko testuen testualizazioa, gero eta modu autonomoagoan, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren.
- Eraginkortasunez parte hartzea ahozko zein ikus-entzunezko interakzioetan, bai ikastetxearen barruan zein kanpoan komunikatzea xedetzat dutenetan (eguneroko gaiak eta interes pertsonal, sozial edo lanekoa dutenak), bai ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea xedetzat dutenetan (helburu bat lortzea, jarduera bat antolatzea, testu bati buruz eztabaidatzea...)
- Interakzio soziala arautzen duten arauak autonomiaz eta eraginkortasunez erabiltzea: hitza hartzeko txanda, gaiari eustea, bestearen iritzia kontuan hartzea, kortesia-arauak...
- Ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, ahozko testuak ulertzen eta sortzen laguntzeko.
- Interakzioak hasteko, edukitzeko eta amaitzeko lagungarri diren eta interakzioak eraginkorago egiten dituzten oinarrizko komunikazio-estrategiak erabiltzea.
- Hizkuntza bakoitzeko testuetan hitzen edo esaldien ahoskera-, erritmo-, intonazio- eta azen-tuazio-eredu oinarrizkoak ezagutzea eta sortzea.
- Edozein hizkuntzatan eskuratutako hizkuntza-ezagutzak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, beste hizkuntzetako ahozko testuak ulertzen eta sortzen laguntzeko.
- Autoebaluazio- eta koebaluazio-estrategiak gero eta modu autonomoagoan erabiltzea, ahozko jarduna hobetzeko.
- Ahozko komunikazioaren oinarrizko ezaugarriak eta berariazko elementuak: hitzezkoak eta hitzik gabekoak.
- Landutako ahozko testuen funtsezko ezaugarriak: xedea, egitura, erregistroa, solaskideak, berariazko elementu espresiboak...
- Interakzioa hizkuntzen ikaskuntza-prozesuak erregulatzeko bitartekotzat hartzea.
- Talde-lanean aritzean, lankidetzarako jarrera izatea eta errespetuz jokatzeta.
- Ahozko testuetan euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntzak erabiltzeari dagokionez jarrera positiboa izatea.
- Atzerriko hizkuntzetako hiztunekin komunikatzeko interesa eta ekimena.
- Interesa edukitzea ahoz modu proaktiboan, besteekiko begirunez eta norberak ahozko adierazpenetan dituen aukeretan konfiantza izanik adierazteko.
- Solaskideen hizkuntza-ohiturak eta iritziak errespetatzea.
- Inplizituki edo esplizituki aurreiritzi sexistak, arrazistak eta bestelakoak dituzten hizkuntza-erabileren aurrean jarrera kritikoa izatea.
- Konbentzitzea helburu duten mezuen aurrean, jarrera kritikoa izatea; bereziki, komunikabide sozialetatik datozen mezuekin.

3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

- Askotariko euskarritan dauden testu idatziak ulertzea eta baloratzea (esparru pertsonal, sozial akademiko eta lan-mundukoak), arreta berezia jarriz narrazio-, deskribapen-, azalpen-, elkarrizketa- eta argudio-testuei eta haien generoei.

- Igorlearen asmoa zein den jakitea, arlo pertsonal, sozial eta akademikoko zein lan-ar- loko idatzietan dauden testuinguru-elementuak kontuan hartuta.
- Testuaren esanahi orokorra identifikatzea eta ideia nagusiak bereiztea.
- Testu idatziak sortzea, euskarri desberdinetan, aurrez planifikatuta eta zenbait kasutan ere- duen laguntzaz gidatuta: eguneroko bizitzako eta esparru publikoko testuak (oharrak, mezuak, gutunak, erreklamazioak, curriculum vitae, eskaerak, abisuak, formularioak, galdetegiak...), komu- nikabideetako testuak (zuzendariarentzako gutunak, iritzi-artikuluak, albisteak, elkarrizketak...) eta arlo akademikoko testuak (laburpenak, ariketak, azalpenak, txosten errazak, iruzkinak...), arreta berezia jarriz narrazio-, deskribapen-, elkarrizketa-, azalpen- eta argudio-testuei, eta kontuan izanik komunikazio-egoerarekiko duen egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna, hiz- kuntzaren erabilera ez-sexista eginez betiere.
- Idatzizko testuak ulertzeko eta sortzeko estrategiak (irakurketa azalekoa, sakona eta kri- tiko-gogoetatsua) gero eta modu autonomoagoan erabiltzea.
- Planifikatzea, informazioa bilatzea, testu idatziak egituratzea, testualizatzea eta berrikustea, zenbait formatutan, modu gidatu edo autonomoan, aurrez komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatuta, gero eta autonomia handiagoz eta zentzu kritikoz.
- Testu idatziak ulertu, sortu, zuzendu eta hedatzeko faseak lantzeko teknikak eta tresna digita- lak erabiltzea, gero eta autonomia eta eraginkortasun handiagoz.
- Gero eta autonomia handiagoz, ikastetxeko liburutegia eta mediateka, mediateka publikoa eta liburutegi birtualak erabiltzea informazioa aurkitu eta hautatzeko.
- Autoebaluazio- eta koebaluazio-estrategiak gero eta modu autonomoagoan erabiltzea, ida- tzizko testuak hobetzeko.
- Askotariko helburua duten interakzio idatzietan eraginkortasunez parte hartzea, sareko balia- bideak erabilia, begirunez eta lankidetzaz.
- Edozein hizkuntzatan garatutako hizkuntza-ezagutzak erabiltzea, arloko gainerako hizkuntze- tan testu idatziak ulertzen eta sortzen laguntzeko.
- Idatzizko komunikazioaren oinarritzko ezaugarriak.
- Oinarritzko testu-moten funtsezko ezaugarriak: narrazioa, deskripzioa, azalpena, argudiaketa, elkarrizketa...
- Maila bakoitzean landutako idatzizko generoen funtsezko ezaugarriak: xedea, erregistroa, egi- tura, berariazko elementu linguistikoak...
- Irakurtzeko autonomia eta testu idatziekiko interesa sustatzea, informazio-iturri eta gozagarri direnez.
- Idazmena hainbat modutan baloratzea: informazio- eta ikaskuntza-iturritzat; norberaren esperientziak, ideiak, iritziak eta ezagutzak komunikatzeko bidetzat; eta iritziak azaltzeko eta ezta- baidatzeko modutzat.
- Idatzizko testuetan euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntzak erabiltzeari dagokionez jarrera positiboa izatea.
- Zenbait euskarri erabiliz atzerriko hizkuntzetako hiztunekin eta ikasleekin komunikatzeko inte- resa eta ekimena erakustea.

- Implizituki edozelako aurreiritziak dituzten hizkuntza-erabileren aurrean, jarrera kritikoak bultzatzea.
- Informazio-iturri askotarikoak erabiltzearen garrantzia aitortzea.
- Testu idatzien edukiaren aurrean jarrera gogoetatsua eta kritikoa izatea.
- Arlo akademiko, sozial eta lanekoan parte hartzeko orduan testuak ondo idazten jakiteak duen garrantzia baloratzea.
- Gramatika-, ortografia- eta tipografia-arauei dagokienez, testu idatziek paperean nahiz euskarri digitalean aurkezpen egokia izan dezaten interesa agertzea.

4. MULTZOA. Hizkuntzaren dimentsio soziala eta hari buruzko gogoeta

- Munduan eta gaur egungo euskal gizartean dagoen hizkuntza- eta kultura-aniztasunaz ohar-tzea eta identifikatzea.
- EAEko hizkuntzen egoera soziolinguistikoari buruzko azaleko azterketa.
- Testuak irakurtzea eta entzutea, ikasgelan eta ingurunean tokia duten hizkuntzetan.
- Gaztelaniaren zein euskararen hizkera estandarra eta aldaerak bereiztea ikasgelan landutako ahozko zein idatzizko zenbait testutan.
- Edozelako diskriminazioa dakarten hizkuntza-adierazpideei erreparatzea eta igartzea.
- Ahozko zein idatzizko testuak komunikazio-egoerara egokitzeko hizkuntza-baliabideak iden-tifikatzea eta erabiltzea: erregistroa, modalizazio-prozedurak, pertsona-deixiak, denborazkoak...
- Testuak ulertzeko eta sortzeko, landu dituzten testu motak antolatzeko egiturak ezagutzea eta egoki erabiltzea.
- Kohesio-mekanismoak identifikatzea, bereiztea eta ongi hausnartuz erabiltzea, arreta berezia jarriz denborazko lokailuei, erreferentziakidetasuna, hurrenkera, kausa eta ondorioa eta abar adie-razteko mekanismoei...
- Puntuazio-zeinuak testu idatzia antolatzeko eta kohesionatzeko bitartekotzat hartzea eta erabiltzea.
- Paragrafoa esanahidun unitatetzat hartzea eta erabiltzea.
- Oinarrizko elementu sintaktiko, morfologiko eta lexiko-semantikoak ezagutzea eta bereiztea.
- Ikaslearen arlo pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoarekin lotutako maiztasun handi, ertain edo baxuko lexikoa ezagutzea eta erabiltzea.
- Perpausaren osagaiak erlazionatzeko euskarak berezko dituen hizkuntza-elementuak ezagu-tzea, arreta berezia jarriz deklinabide-kasuei eta aditz-komunztadurari.
- Perpausaren osagaiak erlazionatzeko ingelesak berezko dituen hizkuntza-elementuak ezagutzea.
- Idazketaren konbentzioak: hitza, idazketa segmentutan banatzeko oinarrizko tresna; letrak, eta fonemekin duten korrespondentzia; idazketaren norabidea eta zentzua, linealtasuna, paper gaineko banaketa...

- Euskararen, gaztelaniaren eta ingelesaren fonema propioak identifikatzea eta bereiztea.
- Helburu berarekin hainbat hizkuntzatan erabilitako hizkuntza-prozedura jakin batzuk konparatzea eta hizkuntza horietako batean jasotako ezagutzak besteetan erabiltzea, hizkuntzari buruzko hausnarketan laguntzeko.
- Testuen hizkuntza zuzentzeko eta gramatika berrikusteko estrategiak erabiltzea, gidatuta; horretarako, hiztegiak eta ortografia-zuzentzaileak erabili eta kontsultatuko dira, euskarri analogiko edo digitalean.
- Eskola-hiztegiak (euskarri desberdinetan) eta beste kontsulta-obra batzuek ematen dituzten informazio linguistikoaren interpretazioa.
- Autoebaluazioko eta autozuzenketako oinarriko estrategiak erabiltzea, nor bere testuak aztertu eta berrikusita.
- Hizkuntza-barietatea: munduko hizkuntzak, hizkuntza-familiak.
- Hizkuntza-barietatea: hizkera estandarra, gaztelaniaren bariedade geografikoak, euskalkiak...
- Hizkuntzei eta hiztunei buruzko oinarriko kontzeptu soziolinguistikoak.
- Komunikazio-arloko hizkuntzak hitz egiten diren ingurunekeko elementu soziokultural garrantzitsuenak.
- Komunikazio-egoeraren osagaiak.
- Erregistroa.
- Komunikazio-egoerari lotutako hizkuntza-markak: deixia, azalpen-prozedurak, modalizazio-prozedurak... Ahozko eta idatzizko testuetan.
- Testu-egiturak: narrazioa, deskribapena, azalpena, elkarrizketa eta argudiaketa.
- Kohesio-elementuak: lokailuak, erreferentziakidetasuneko elementuak eta puntuazioa.
- Esaldia: oinarriko osagaiak.
- Hitza: kategoriak, osagaiak, hitzak osatzeko bideak eta erlazio semantikoak.
- Aditz-jokoak.
- Oinarriko ortografia-arauak.
- Esaldiaren eta hitzaren fonetika: ahoskera, erritmoa, intonazioa eta azentua.
- Komunikazio-egoeraren ezaugarrietara egokitutako erregistroa erabiltzearen garrantzia baloratzea.
- Norberaren sorkuntzak arautzeko eta ikaskuntza-prozesuko autonomia bultzatzeko, hizkuntzari buruz hausnartzeak duen garrantzia baloratzea.
- Hizkuntza guztiak balioestea komunikatzeko eta ikasteko tresna gisa, eta batik bat ikasgelan eta ingurunean presente daudenak, beste kultura batzuekin aberastasun pertsonala eta soziala lortzeko bitarteko gisa.
- Akatsak hizkuntzen ikaskuntza-prozesuaren zatitzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa agertzea.

- Hitzunen arteko komunikazio eraginkorra bultzatzeko, ortografia- eta fonetika-arauek duten garrantzia eta gizarte-balioa aitortzea.

- Edozelako diskriminazioa dakarten hizkuntza-adierazpideak saihesteko interesa edukitzea.

- Hizkuntza-aniztasuna modu positiboan baloratzea, aberastasun kulturala denez gero.

5. MULTZOA. Literatur hezkuntza

- Autonomiaz irakurtzea ikasleen interesen arabera egokiak diren obrak edo zatiak, ikasturtean zehar landuko genero literarioekin eta autoreekin erlazionatuz.

- Poemak eta bertsoak irakurtzea eta entzutea, iruzkinak eginez eta taldean partekatuz.

Kontaketa literarioak –gure eta beste kulturetako mitoak eta kondairak barne–, iruzkinak eginez eta taldean partekatuz.

- Garai desberdinetako antzerki-obra laburrak edo zatiak irakurtzea eta entzutea, iruzkinak eginez eta taldean partekatuz.

- Abestiak, olerkiak... ulertzea eta erreztatzea, erritmo, ahoskera eta intonazio egokiz.

- Literatur testuarekiko hurbilketa, gai hauen inguruan hausnartuz: literatur generoa, gaia, pertsonaiak, metrika, hizkuntzaren erabilera, egilearen ikuspuntua...

- Literatur genero handiak bereiztea, testuak irakurrita.

- Testu literarioa irakurri aurretik, bitartean eta ondoren testua aztertzen eta interpretatzen laguntzen duten estrategiak eta teknikak erabiltzea.

- Aurrez planifikatuta, irakurritako testu literarioei buruzko balorazio pertsonalak egitea, argudioen bidez eraikitako egitura errazei jarraituz.

- Ikastetxeko liburutegia, mediateka, liburutegi publikoa eta liburutegi birtualak erabiltzea irakurzaletasuna sustatzeko.

- Informazioaren teknologiak erabiltzea, ikasturtean hautatutako obra literarioei buruzko informazioa aurkitzeko.

- Ikasgelan, ikastetxean eta inguruan antolatzen diren literatur jardueretan parte hartzea.

- Literatur generoen ezaugarri bereziak jakitea (narrazioa, lirika eta drama).

- Literatur hizkuntzaren oinarrizko ezaugarriak jakitea.

- Literatura eta ikus-entzunezkoak: komikia, zinema...

- Literaturaren historiako aldi garrantzitsuen eta obra nagusien oinarrizko ezaugarriak jakitea.

- Emakumeek Literaturaren Historiari egindako ekarpena.

- Irakurtzeko autonomia garatzea, eta literatura plazer-iturritzat eta aisialdiko gozagarritzat balioestea.

- Literatur testuen balio esplizituei eta inplizituei dagokienez, jarrera kritikoa izatea.

- Testu literarioa plazera lortzeko eta beste errealitate, kultura eta mundu batzuk ezagutzeko iturritzat hartzea.

- Literatura estimatzea, kultura transmititzeko eta norberaren identitate kulturala eraikitzeko bitartekoa denez, eta horretan emakumeek egindako ekarpenen balioa azpimarratzea.
- Elkarlanean egindako iruzkina edo literatur solasaldia balioestea, ikasketa-gune gisa eta obra literarioari buruzko iritzia eta irizpideak azaltzeko gune gisa.
- Kultura eta hizkuntza aberasteko bidetzat gozatzea literaturaz.

4.– HIZKUNTZA-ARLOKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA -ADIERAZLEAK

1.– Erraztasun edo zailtasun maila desberdineko ahozko zein ikus-entzunezko testuak ulertzea, euskarri desberdinetan, arlo pertsonal, akademiko, sozial eta lanekoetan, arreta berezia jarriz narrazio-, deskripzio-, elkarrizketa-, azalpen- eta argudio-testuei, esanahi orokorra ulertuz eta interpretatuz, ideia nagusiak bereiziz, eta proposatutako helburua lortzeko garrantzitsuak diren informazioak hautatuz, gero eta modu autonomoagoan, banaka zein taldean.

- Landutako ahozko generoak identifikatzen ditu.
- Landutako ahozko testuen zein ikus-entzunezkoen gaia aurkitzen du, banaka zein taldean.
- Igorlearen intenzionalitatea antzematen du, banaka zein taldean, testuinguruaren elementu esplizitu zein inplizituetatik abiatuta.
- Entzutearen helbururako egokiak diren informazioak eta testuaren datu garrantzitsuak identifikatzen eta ateratzen ditu, banaka zein taldeka.
- Informazioak eta iritzia bereizten ditu testuetan.
- Ahozko testuen zentzu globala berreraikitzen du, banaka zein taldeka.
- Ideia nagusiak bereizten ditu.
- Elementu ez-esplizituak ondorioztatzen ditu testuan: zentzu bikoitza, ironia...
- Estrategia egokiak erabiltzen ditu ahozko testuak ulertzean sortzen zaizkion zalantzak argitzeko, banaka zein taldean.
- Arretaz entzuten du.
- Errespetuz entzuten du.
- Esapide sexistez eta diskriminatzaileez ohartzen da.
- Jarrera proaktiboa erakusten du ahozko testuen ulermenean.
- Ahozko testuekiko interesa erakusten du, informazio-iturri diren aldetik...
- Testuen ulermenean autonomia baloratzen du.

2.– Modu aktiboan eta egokian parte hartzea ikaskuntzako eta gizarteko ahozko harremanetan, bai eta interes sozial, laneko, politiko edo kulturaleko eztabaidetan ere, talde-lanean aritzeko lan-kidetza-jarrera positiboarekin.

- Taldeko elkarrizketetan parte hartzen du, ideiak, gertaerak, bizipenak eta sentimenduak azaltzeko, iritzia emateko eta erabakiak hartzeko.
- Egoera bakoitzerako egokia den erregistroa erabiltzen du.

- Modu naturalean esku hartzen du, eta bere ikuspegi kritikoa eta pertsonala azaltzen du.
 - Galderei erantzuten die, eta hitza hartzean argudioak ematen ditu.
 - Ikuspegi desberdinak alderatzen ditu.
 - Interakzioetan esplizituak ez diren elementuak ondorioztatzen ditu.
 - Solaskideak esandakoa entzun, eta horren arabera egokitzen ditu bere hitzak, argudioak eta kontra-argudioak.
 - Testuingurura egokitutako hiztegia eta esamoldeak erabiltzen ditu.
 - Taldekideek esandakoaren harira, galdera eta iruzkin egokiak, neurrikoak eta kritikoak egiten ditu.
 - Taldekideek hitza hartzen dutenean, errespetuz entzuten du, eta, horrekin batera, bere ikuspegi defendatzen du.
 - Hitz egiteko txanda errespetatzen du, arau soziokomunikatiboak betetzen ditu, eta gainerako solaskideek ere bete ditzaten ahalegintzen da.
 - Erabilera diskriminatzaileak saihestu, eta hizkuntza-alternatiba ez-sexistak eta inklusiboak bilatzen ditu.
 - Intonazio, jarrera eta keinu egokiak erabiltzen ditu.
 - Autoebaluazio- eta koebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu ahozko jarduna hobetzeko.
 - Ahozko jardunean parte hartzea baloratzen du.
- 3.– Banaka zein taldeka, aurrez planifikatuta, zailtasun maila desberdineko ahozko testuak egitea, zenbait erabilera-esparrutakoak, eraginkorrak, argiak eta ongi egituratuak, eta gaitzat harturik ikasle helduentzat interesgarri diren eguneroko kontuak, gizarte-arlokoak, lanekoak edo gaurkotar politiko edo kulturalakoak, ikus-entzunezko bitartekoen eta IKT baliabideen laguntzaz.
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak aztertu, eta haien arabera egoki diren erabakiak hartzen ditu, bakarrik zein taldeka.
 - Ahozko testuen edukia planifikatzen du, banaka zein taldeka, gero eta autonomia handiagoz, eta oharrak, eskemak, gidoiak eta abar erabiltzen ditu horretarako.
 - Iturri desberdinetatik jasotako informazio garrantzitsua eta ikuspegi askotarikoa bilatu, hautatu eta biltegitratzen du: ahozkoak, inprimatuak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
 - Informazioa logikaz eta modu sortzailean antolatzen du, komunikazio-asmoa kontuan hartuta.
 - Testuak ulergarri egiteko eta hartzailerak inplikatzeko landutako estrategiak erabiltzen ditu: ideiak errepikatzea, galdera erretorikoak egitea, erregistroz aldatzea, umorea, sormena...
 - Banakazein taldekazentzat, aurrezemandakogidoi batilotuta, ahozko azalpen-, narrazio- eta elkarriketa-testuak sortzen ditu, besteak beste.
 - Zuzentasun, etorri eta ahoskera maila nahikoaz hitz egiten du.
 - Egoki erabiltzen ditu hitzezkoak ez diren alderdiak: tonua, keinua, gorputz-jarrera.
 - Banaka zein taldean, eraginkortasunez eta modu sortzailean erabiltzen ditu informazioaren eta komunikazioaren teknologiak bere ahozko aurkezpenetan, aurkezpen horiek egiteko eta zabalteko bitarteko gisa.

- Autoebaluazio- eta koebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu ahozko testuak hobetzeko.
- Badu konfiantza bere komunikazio-gaitasunetan.
- Hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak saihesten ditu.
- Testuak hobetzeko prozesuetan autonomia baloratzen du.
- Testuak hobetzeko prozesuetan talde-lanean aritzeko interesa agertzen du.

4.– Zailtasun-maila desberdineko testu idatziak ulertzen ditu (narrazioak, deskripzioak, elkarriketak, azalpenak, argudioak), euskarri desberdinetan, arlo pertsonal, akademiko, sozial zein lanekoak, zentzu orokorra eta ideia nagusiak zein bigarren mailakoak aurkituz eta interpretatuz –banaka zein taldean–, testuaren edukia eta forma modu kritikoan baloratuz, eta proposatutako helburua lortzeko informazio egokiak hautatuz, gero eta modu autonomoagoan.

- Oinarrizko testu-motak identifikatzen ditu.
- Landutako idatzizko generoak identifikatzen ditu.
- Gero eta autonomia handiagoz irakurtzen ditu bere mailarako luzera egokia duten testuak, hainbat euskarritan eta askotariko helburuak dituztela.
- Garrantzizko informazio espezifikoa aurkitzen eta hautatzen du, irakurgaiaren helburua zein den kontuan hartuta.
- Ezagutzen ditu norberaren interesei lotuta eguneroko gaiei, gai sozialei, lanekoei eta abarri buruz landutako esamoldeak eta lexikoa.
- Testuaren gaia ondorioztatzen du.
- Igorlearen asmoa zein den antzematen du, landutako testuetan dauden elementuak (esplizituak eta inplizituak) kontuan hartuta.
- Testuaren esanahi orokorra laburtzen du.
- Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak identifikatzen ditu.
- Informazioak eta iritziak bereizten ditu.
- Gaiari edo egoerari buruz aurretik dakienetik abiatuta, inferentziak eta hipotesiak egiten ditu.
- Autonomiaz hautatzen eta erabiltzen ditu ideiak antolatzeko teknikak, idatzizko testuen antolaketak irudikatzen: eskemak, grafikoak, mapa kontzeptualak...
- Ulermen-arazoak argitzeko estrategiak erabiltzen ditu, gero eta autonomia handiagoz.
- Esamoldeak eta testu-zatiak zentzu osoaren arabera interpretatzen ditu.
- Testuei buruzko hausnarketa partekatuetan parte hartzen du.
- Irudi, elementu ikoniko, tipografiko eta antzeko elementuen esanahia interpretatzen eta baloratzen du testu idatziak ulertzeko.
- Elementu multimodalen esanahia integratzen du testu digitaletan, eta testuaren esanahiari egiten dioten ekarpena baloratzen du.
- Testuaren edukiaz gero eta modu autonomoagoan hausnartzen du eta baloratzen du...

- Testu idatzietan nolabaiteko diskriminazioa adierazten duten esamoldeak identifikatzen eta arbuiatzen ditu, eta haien esanahia aztertzen du.

- Irakurketa baloratzen du informazio-, ezagutza- eta gozamen-iturri gisa.

5.— Paperean edo euskarri digitalean, aurrez planifikatuta, zailtasun maila desberdineko testu idatziak egitea, zenbait erabilera-esparrutakoak, betiere nahikoa maila dutela egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasunari dagokionez, eta gaitzat harturik eguneroko kontuak, gizarte-arlokoak, lanekoak edo gaurkotasun politiko edo kulturekoak, IKT baliabideen laguntzaz, gero eta autonomia handiagoz, banaka zein taldeka.

- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatzen ditu, banaka zein taldeka, eta haien araberaren egoki diren erabakiak hartzen ditu.

- Gero eta autonomia handiagoz, banaka zein taldeka, informazio garrantzitsua eta ikuspegi desberdinetakoa bilatzen, hautatzen eta gordetzen du, askotariko iturriak erabilia (inprimatuak, ahozkoak, ikus-entzunezkoak, digitalak...)

- Testuaren edukia planifikatzen du, gero eta autonomia handiagoz, banaka zein taldeka, eske-mak, oharrak, mapa kontzeptualak eta abar erabiliz.

- Informazioa paragrafoetan antolatzen du, zentzu aldetik batasuna emanez.

- Egoera bakoitzerako egokia den erregistroa erabiltzen du.

- Aurrez definitutako asmoa edo helburua egoki adierazten du.

- Informazioa ulergarri egiteko eta hartzaileraren inplikatzeko estrategiak erabiltzen ditu, hala nola sormena, ideien birformulazioa, adibideak, grafikoak, galdera erretorikoak...

- Kohesio-elementu askotarikoak eta egokiak erabiltzen ditu (anaforak, lokailuak, puntuazio-zeinuak...)

- Arau gramatikalak eta tipografikoak betetzen ditu, bai eta arau ortografikoak ere.

- Autoebaluazio- eta koebaluazio-estrategiak autonomiaz eta elkarlanean erabiltzen ditu, idatzizko testuak berrikusteko eta hobetzeko.

- Testu idatziak sortzeko eta hedatzeko fase guztietan teknika eta tresna digitalak erabiltzen ditu, eraginkortasunez eta sormena landuz, banaka zein taldeka.

- Banaka zein taldeka, testua egoki eta zuzen aurkezten du: marjinak, idazpuruak, irakurgarritasuna...

- Badu konfiantza bere komunikazio-gaitasunetan eta hobetzeko gaitasunean.

- Hizkuntzaren erabilera sexistak saihesten ditu bere idatzizko testuetan.

- Idazmena komunikatzeko eta sortzeko bidetzat baloratzen du.

- Bere testuak eta besteenak baloratzen ditu.

6.– Irakurtzeko autonomia garatzea, eta Literatura eta beste gizarte-zientzietako, arlo zientifiko eta abarreko testu garrantzitsuak gozamen-iturritzat hartzea, mundua ezagutzeko bidetzat, kultura eta hizkuntza aberasteko modutzat, eta nortasun pertsonala, kulturala nahiz soziala erakitzeko bidetzat.

- Irizpide propioz hautatzen ditu obra literarioak eta bestelako testu garrantzitsuak.
- Autonomiaz eta eraginkortasunez erabiltzen ditu ikastetxeko liburutegia, mediateka publikoa eta liburutegi birtualak, testu literarioak eta bestelako testu garrantzitsuak hautatzeko.
- Autonomiaz irakurtzen ditu Euskal Literaturako, Espainiar Literaturako eta Literatura Unibertsaleko obrak.
- Gero eta autonomia handiagoz irakurtzen ditu ezagutza-arlo desberdinetako testuak.
- Argudioak emanez azaltzen du irakurketak zer ekarpen egin dion esperientzia pertsonal gisa eta zer alderdi egin zaizkion deigarri.
- Literaturarekiko interesa du, gozamenerako eta mundua ezagutzeko bidea den aldetik.
- Emakumeen eta haien obra nagusien ekarpenak ezagutzeko interesa du, bai Literaturakoak bai beste arlo batzuetakoak.
- Testu literarioari eta beste testu garrantzitsu batzuei buruzko hausnarketa partekatuetan parte hartzen du, bere esperientzien eta ikuspegi pertsonaren berri emanez.
- Irakurketa baloratzen du informazio-, ezagutza- eta gozamen-iturri gisa.
- Testu literarioa eta jakintza-arlo desberdinetako testuak baloratzen ditu.

7.– Literatura Unibertsalaren erakusgarri diren obra osoak edo zatiak ulertzea, irakurritz edo entzunez, zenbait kasutan, eta norberaren iritzia ematea, literaturako oinarrizko ezagutzak erabilita.

- Genero diferenteetako testu literarioak irakurtzen eta entzuten ditu.
- Literatur-genero tradizional handiak eta haien ezaugarri nagusiak desberdintzen ditu.
- Esanahi bateratuak sortzeko jardueretan parte hartzen du.
- Literatur ondarearen erakusgarri diren obrak identifikatzen ditu, eta kritikoki baloratzen.
- Emakumeen ekarpenak eta haien obra nagusiak ezagutzeko interesa du, Literatura Unibertsalean.
- Literaturarekiko interesa erakusten du, aberastasun kulturala eta linguistikoa eskuratzeko bidetzat.
- Maiz parte hartzen du ikastetxeak antolatutako kultur eta literatur jardueretan.
- Literatur obraz duen iritzi pertsonala ematen du, atentzia eman dioten alderdiei buruz argudiatuz.

8.– Hizkuntza-aniztasuna kritikoki interpretatzea eta baloratzea, banaka zein taldean, hizkuntzeko eta hizkuntza-aniztasunarekiko errespetua erakutsiz eta oinarrizko ezagutza soziolinguistikoak erabiliz.

- Ikasgelan eta ingurunean hitz egiten diren hizkuntzak identifikatzen ditu.

- Azaletik, eta gero eta autonomia handiagoz, ikastetxeko eta inguruneke egoera soziolinguistiko deskribatzeko gai da, oinarrizko ezagutza soziolinguistikoak aplikatuta.

- Euskarak, gaztelaniak eta ingelesak egun munduan duten egoera azaletik deskribatzen du, banaka zein taldeka.

- Hizkuntzen arteko ukipen-fenomenoak identifikatzen ditu.

- Euskararen eta gaztelaniaren erabilera-barietateak askotariko erregistroen erakusgarritzat baloratzen ditu.

- Hizkuntzekiko eta hiztunekiko aurreiritziak saihesten ditu.

- Inguruan eta EAEn dagoen eleaniztasunarekiko eta kultura-aniztasunarekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa agertzen du.

9.– Gogoeta egitea, banaka zein taldeka, komunikazio-esparruko hizkuntza bakoitzaren sistemaren eta erabilera-arauei buruz eta hizkuntza batetik bestera eraman daitezkeen ezagutzez, ezagutza horiek baliatuz bai ulermen-arazoak konpontzeko bai testuinguru bakoitzean testualizazio-prozesuak hobetzeko, betiere estereotipo linguistikoak alde batera utzita, aurreiritzi sexistak, klasistak eta halakoak eragiten baitituzte.

- Oinarrizko terminologia linguistikoak ezagutzen du.

- Hizkuntzari buruzko hausnarketa-jardueretan oinarrizko terminologia linguistikoak erabiltzen du.

- Komunikazio-egoerarekin, arlo diskurtsiboarekin eta arlo gramatikalarekin lotutako marka linguistikoak identifikatzen eta bereizten ditu, moduluan sartzen diren testuen lanketatik abiatuta.

- Hitzak eratzeko bideak ezagutzen eta bereizten ditu.

- Hitzen arteko erlazio semantikoak ezagutzen eta azaltzen ditu.

- Bere ekoizpenetan, arau fonetiko, ortografiko eta morfosintaktikoak ezagutzen eta errespetatzen ditu.

- Hizkuntza-sistemari buruzko erregulartasunak ateratzen ditu, testuak edo enuntziatuak konparatuz eta transformatuz, emandako irizpideen arabera.

- Hizkuntza-arloko hizkuntza batean garatutako ezagutza linguistikoak beste zeinahi irakaskuntza-hizkuntzaren ulermena eta ekoizpena hobetzeko erabiltzen ditu.

- Hizkuntzaren zenbait alorretan egindako zenbait akats identifikatzen eta zuzentzen ditu, bai bere testuetan, bai besteen testuetan, gero eta autonomia handiagoz.

- Hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak saihesten ditu, ahoz zein idatziz.

- Bere ekoizpenetan hizkuntza-arauak betetzeko interesa erakusten du.

- Konfiantza erakusten du testuak hobeto ulertzeko eta sortzeko.

- Testuen zuzenketa autonomia baloratzen du.

10.— Informazio-teknologiak autonomiaz eta jarrera kritikoz erabiltzea, banaka zein taldeka, informazioa bilatu, hautatu, kudeatu eta komunikatzeko, jarduera akademikoaren premiei erantzuteko xedez.

- Informazioa aurkitzen du, bilaketa aurreratuko tresnak eta gaikako bilatzaileak erabiliz.
- Eraginkortasunez eta irizpide koherenteen arabera gordetzen du hautatutako informazioa, tokiko euskarriak eta lineakoak erabiliz, eta informazio hori berreskuratzen du.
- Informazioa autonomiaz etiketatzen du, modu egokian eta eraginkortasunez.
- Komunikazio- eta lankidetzeta-helburuetara egokitutako askotariko tresnak eta aplikazioak erabiltzen ditu.
- Bere ekoizpen digitaletan, iturrien egileak aipatzen ditu, modu gidatuan.
- Jarrera kritikoz eta gero eta autonomia handiagoz balioesten du informazio-iturrien fidagarritasuna, eta informazio faltsuak antzematen ditu.
- Bere ekoizpen digitaletan, iturrien egiletzari buruzko arauak errespetatzen ditu.
- Komunikazio digitaletan, zaintzen eta errespetatzen ditu komunikazio-mota horretako kortesia-arauak.

11.— Ikasleak bere hizkuntza-ikaskuntzaz gogoeta egitea, hizkuntzak ikasteko duen gaitasunean konfiantza izanik, autonomiaren, lankidetzaren eta autorregulazioaren garapena sustatzeko.

- Badaki zer ikasketa-helburu eta ebaluazio-irizpide finkatu diren.
- Autonomiaz erabiltzen ditu ikaskuntza hobetzeko autorregulazio-estrategiak.
- Autonomiaz parte hartzen du berak zein besteek sortutako testuak berrikusteko eta hobetzeko lanetan.
- Kontrol-zerrendak sortzen ditu taldean, eta autoebaluazio- eta koebaluazio-jardueretan erabiltzen ditu.
- Gero eta autonomia handiagoz erabiltzen ditu zeinahi hizkuntzatan garatutako autorregulazio-estrategiak, gainerako hizkuntzak hobeto ikasteko.
- Ikasketa-helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzeko interesa du.
- Akatsak egitea ikasteko prozesuaren zati dela onartzen du.
- Jarrera proaktiboa eta asertiboa du ikaskuntzak berezko dituen zailtasunak gainditzeko.
- Ikaskuntzan aurrera egiteko dituen gaitasunak eta zailtasunak gero eta hobeki ezagutzen ditu.
- Badaki zer ikasi duen, eta arloko hizkuntzen ikaskuntzan helburu berriak jartzeko gai da.

GIZARTE-ARLOA

1.– SARRERA

Eremu sozialetik, helduek bizi diren munduaren errealitate soziala ulertzeko behar dituzten gaitasunak eskura ditzaten lortu nahi da, modu kritiko eta arduratsuan jardun ahal izan dezaten bertan, eta gai izan daitezen etorkizun hurbilean gero eta globalizatuagoa eta aldakorragoa den mundu bati aurre egiteko.

Kontuan izan behar dugu helduek nortasun kulturala eta historia pertsonala dutela. Hau da, dagoeneko badituzte jokabide finkatuak, gaitasun garatuak eta nortasun zehatza. Hainbat talde-tako kide izateko harremanak eta ezagutza-multzo bat dituzte. Bizitzak planteatu dizkien arazo jakin batzuk konpontzen eta zailtasunak gainditzen ikasi dute, eta balio eta jarrera errotuak dituzte. Abiapuntu hori kontuan hartuta, eremu honek ezagutza eta tresna sozialak emango dizkie, beren gaitasunen garapenean aurrera egin ahal izateko.

Baina helduak lehen pertsonan bizi izan du, ume edo nerabeek ez bezala, hemen ikasiko den historiaren zati bat, eta bere ingurunean gertatu diren aldaketen eragile aktibo izan da. Hortaz, bere esperientziak eta bizipenak kompetentzia honen curriculumaren parte izan behar dira.

Bizi den ingurunea, sortu dituen harreman pertsonalak eta haren parte-hartzea komunitateko herritar aktibo gisa, horiek denak kontuan hartu beharko lirateke kompetentzia sozial eta hiritarren sakontzeko orduan.

Gizarte-esparruko ekarpenek aukera ematen diete gero eta autonomia handiagoz eta erantzukizunez jokatzeko; espiritu kritikoa garatzeko gizarte-egoera desberdinei dagokienez, elkarriketan eta parte-hartzean oinarrituta, balio demokratikoetan, justizia sozialean eta aniztasunarekiko errespetuan oinarrituta. Azkenik, esparruak gizarte modernoetan dauden bidegabekerien eta desberdintasunen kontzientzia hartzea sustatzen du.

Eremu horrek, era berean, fenomeno historiko-sozialak ikertzea sustatzen du, bai eta ikuspegi sinplistik gainditzen dituzten eta giza gizartearen berezko konplexutasuna ulertzen laguntzen duten planteamenduak kontuan hartzea ere. Balio eta jarrera pertsonalak garatzen ditu, hala nola erantzukizuna, autonomia, autokritika, norberaren aukerez jabetzea eta arriskuak hartzea, aldeko alderdiak eta zailtasunak kontuan hartuta. Era berean, gizarte-eremuari esker, ikasleek parte har dezakete eta bizitza soziala eta herritarra eraldatzen lagundu dezakete, bakoitzak bere esperientziatik abiatuta prozesu horren protagonista izan dadin.

2.– HELBURUAK

1.– Gure gizartearen kultur aniztasuna herrien eta pertsonen aberastasun gisa ezagutzea eta interpretatzea, beste kultura eta iritzi batzuekiko interesa eta errespetua erakutsiz, baina haiekiko iritzi kritikoa izateari uko egin gabe, estereotipo eta aurreiritzi sexistak, klasistak, arrazistak eta bestelakoak gainditzeko eta kultur aniztasunarekiko jarrera positiboa izateko.

2.– Gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoz erabiltzea komunikabide sozialak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, banaka zein taldeka, iritziak eta informazioak lortzeko, interpretatzeko eta baloratzeko.

3.– Adierazpen artistikoak eta haien testuinguru sozial eta kulturala ezagutzea eta interpreta-tzea, banaka zein taldeka, ondare artistikoa banakako zein taldeko esperientzia sinbolizatze-ko modutzat eta norberaren gozamenerako iturritzat hartuz.

4.– Gertaera eta prozesu historikorik garrantzitsuenak identifikatzea, tokiko eremutik globaleraino, zeinen bidez eratu den tokiko, autonomia mailako, estatuko eta Europar Batasuneko instituzioen antolaketa politikoa eta funtzionamendua, Gizateriaren bilakaeraren ikuspegi pertsonal eta zabala eskuratzeko.

5.– Fenomeno sozialak zuzentzen dituzten prozesuak eta mekanismoak zein diren jakitea, eta gertaera sozialen, politikoen, ekonomikoen eta kulturalen arteko loturak aztertzea, gaur egungo gizartearen bilakaera azaltzen duten kausak askotarikoak direla ulertzeko, eta Historiaren ikuspegi arrazoitua eta kritikoa edukitzeko, gizartea sozialki hobetzeko xedez.

6.– Ingurune fisikoaren bereizgarri diren oinarritzko elementuak zenbait eskalatan identifikatzea eta kokatzea, ingurune hurbiletik abiatuta eta haien arteko interakzioei erreparatuz, ulertzeko gizakion bizitza nola baldintzatzen duten eta, aldi berean, gizakiak nola eraldatzen dituen, eta, horrela, kontzientzia eta sentsibilizazioa pizteko gizakiaren ekintzak sortzen dituen gizarte-eta ingurumen-arazoen aurrean.

7.– Zientzia ekonomikoaren oinarriak, oinarritzko terminologia eta ekonomia global batean finantza-merkatuak dituen bitartekoak ezagutzea, bai eta administrazio publikoek eta sistema fiskalak errenta birbanatzeko duten eginkizunaz jabetzea ere, gizartean jarrera kritiko eta parte-hartzailea hartzeko, laneratzearen eta ekintzaitzaren baldintzak hobetzeko xedez.

8.– Norberaren ikaskuntza-prozesuak eta komunikazio-estrategiak ezagutu eta haiei buruz hausnartzea, norberak ikasteko duen gaitasunaren inguruan konfiantzazko jarrera eta espektatiba altuak indartuz, hartara autonomia, autorregulazioa eta ikaskuntza-sozialetako lankidetzaren sustatuko baita.

3.– EDUKI-MULTZOAK

3.1.– Eduki-multzoen ezaugarriak.

Eremu sozial hori 11 eduki-multzok osatzen dute. Eduki-multzo hauek modu sintetikoan azaltzen dira gizarte-arloko edukiak, baina ez da zehazten ikaskuntza-jarduerek ikasgelan izango duten hurrenkera eta antolaketa. Horregatik, programazioak egitean eta jarduera-sekuentziak ikasgelara eramatean, beharrezkoa da zenbait multzotako edukiak integratzea, inolaz ere ahaztu gabe arlo honetako lanaren oinarria prozedura- eta jarrera-edukiek osatzen dutela, eta adierazpen-edukiak aurreko horien zerbitzura daudela.

1. blokeak, A atalean, zeharkako oinarritzko gaitasunekin lotutako edukiak garatzeko ezinbestekoak diren edukiak jasotzen ditu. Eduki horiek eremu guztietan eta hiru graduetan landu eta ebaluatu behar dira. Era berean, B atalean, gizarte-eremu honetako bloke guztietarako eduki komunak jasotzen dira.

2. eta 3. blokeak, funtsean alderdi geografikoei buruzko edukietan zentratzen direnak, lurralde-erreferentzia gisa ikaslearengandik hurbilen dagoenetik urrunenera doana hartuz. Horrela osatzen da Euskal Herria, Iberiar Penintsula, Europa eta mundua hartzen dituen ibilbide espaziala. Gainera, paisaia naturalak eta gizataldeen ekintzaren eragina aztertzen dira.

4., 5. eta 6. blokeetan, eremu espazialen antolaketa politikoa eta lurralde-antolamendua aztertzen dira, hurbilenetik hasita: Autonomia Erkidegoa eta nazioarteko erakunde handiak. Era berean, egungo gizarteetan dagoen kultura-aniztasunari heltzen zaio, bai eta komunikabide berriek horietan izan duten eraginari eta garrantziari ere.

7. blokean, ekonomia aztertzen du, bere alderdirik oinarritzkoenetatik hasi eta mundu mailako finantza-mugimenduetaraino.

8. blokeak administrazio publikoek egungo gizarteetan duten garrantziaren berri ematen du, lurraldearen sustapenari, lurraldearen garapenari eta herritarren ongizatearen sustapenari dagokienez.

9. blokeak azken mendeetako gertakari historikoen eta gatazken ikuspegi orokorra ematen du, egungo gizarteetan eragin eta osatu diren espazio-eremu guztietan.

10. blokeak denboran zehar sortutako gatazken berri ematen du, baita bakea eta bizikidetzaren berrezartzeko erabili diren tresnen berri ere.

Amaitzeko, 11. blokeak Giza Eskubideak errespetatzearen garrantzia aitortzeko eta pertsonen arteko bizikidetzaren baketsuari buruz hausnartzeko helburua du.

1. MULTZOA. Eduki komunak

A) Arlo guztietan komunak diren oinarritzko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Eduki-multzon honetan biltzen diren prozedurek eta jarrerak xede hauek dituzte:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, biltegitratzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatu, sailkatu, sekuentziatu, aztertu eta sintetizatu), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatu, definitu, laburbildu, azaldu...)
- Informazioa baloratzea eta adieraztea (argudiatu, justifikatu...)
- Ideiak sortzea, hautatzea eta adieraztea.
- Ideia, zeregin eta proiektuen plangintza eta bideragarritasuna aztertzea.
- Planifikatutakoa egikaritzea eta, beharrezko bada, doitzea.
- Planifikatu eta egin dena ebaluatzea eta hobekuntza-proposamenak egitea.
- Lortutako emaitza komunikatzea.
- Harremanen garapena eta pertsona arteko komunikazioa (enpatia eta asertibitatea).
- Lankidetzaren eta elkarlana, taldean ikasteko zereginetan.
- Giza eskubideak eta konbentzio sozialak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Gorputz-dimentsioaren autorregulazioa.
- Emozioen autorregulazioa.
- Estilo kognitiboaren autorregulazioa.
- Hitzeko zein hitzik gabeko komunikazioaren eta komunikazio digitalaren autorregulazioa.
- Portaera moralaren autorregulazioa.
- Motibazioaren eta borondatearen autorregulazioa.

B) Gizarte-arlo honetako multzo guztien eduki komunak.

- Alderdi historiko, kultural, sozial eta bestelakoei buruz hipotesiak planteatzea, egitea eta egiaztatzea.
- XX. mendeko gertakari eta prozesu historikorik garrantzitsuenak denboran eta espazioan kokatzea.
- Aldaketa-prozesuak behatzeko jarraibideak.
- Denbora-segidak grafikoki irudikatzeko teknikak: denbora-lerroak eta friso historikoak.
- Iraganeko eta egungo gizartearen arteko aldeak eta berdintasunak identifikatzea, aztertzea eta alderatzea.
- Irudiak agiri historiko gisa aztertzeko jarraibideak.
- Dokumentalak agiri historikotzat baloratzea.
- Aldaketa historikoen prozesuetan eragiten duten faktoreak identifikatzeko jarraibideak; kausak eta ondorioak bereiztea.
- Historia-azalpenen kausalitate-aniztasuna aztertzea.
- Prozesu historikoetan parte hartzen duten osagai ekonomikoak, sozialak, politikoak eta kulturalak identifikatzea, eta haien artean dauden loturak ulertzea.
- Prozesu historikoetan esku hartzen duten osagai ekonomikoak, sozialak, politikoak eta kulturalak identifikatzea, eta haien arteko harremanak ulertzea.
- Artelan garrantzitsuak eta esanguratsuak testuinguruan kokatzea eta interpretatzea.
- Hainbat gizarteren arte- eta kultura-adierazpenak balioestea eta errespetatzea.
- Ikuspegi kritikoa bere egitea egoera bidegabeen, gerren, terrorismoaren eta indarkeriaren aurrean, eta elkarrizketa gatazkak konpontzeko bitartekotzat balioestea.
- Memoria historikoak etorkizuna eraikitzeko duen funtzioa balioestea.
- Herentzia kulturalaren eta gure ondare historiko-artistikoaren aberastasuna eta aniztasuna baloratzea, errespetatzea eta gozatzea. Hura kontserbatzearen eta defendatzearen aldeko jarrera edukitzea.
- Iraganaren berri izateko eta gaur egun gizartearekin zer-nolako lotura duen jakiteko interesa eta jakin-mina.
- Jarrera kritikoa gertaera historikoen aurrean.
- Giza eskubideak baloratu eta errespetatu eta injustizia modu oro arbuiatzea.
- Gizonen eta emakumeen papera baloratzea, indibidualki zein kolektiboki, historiako subjektu gisa.
- Parte-hartze aktiboa eta eraikitzailea, arduratsua eta elkartasunezkoa talde-lanak edo beste-lako eginkizun kolektiboak egitean.
- Nork bere hutsegiteak naturaltasunez onartzea, eta horiek zuzentzeko eta hortik ikasteko jarrera izatea.

2. MULTZOA: Lurra, paisaia naturalak eta giza esku-hartzea

Lurra eta ingurune naturalak: giza ekintzak eragiten dizkien ondorioak.

- Lurra Eguzki-sisteman.
- Lurraren irudikapena. Latitudea eta longitudea. Proiekzioak.
- Orientazio eta kokapen geografikoa.
- Paraleloak eta meridianoak.
- Hemisferioak. Ordu-eremuak.
- Lurraren formazioa eta egitura: atmosfera, hidrosfera eta litosfera.
- Erlikearen, uren, klimaren eta landarediaren oinarritzko osagarriak.
- Eguraldia eta klima. Klimaren elementuak. Klimaren oinarritzko faktoreak.
- Klima-aniztasuna. Klima-zonak.
- Giza jarduerak kliman duen eragina: klima-aldaketa.
- Ingurune naturala.
- Giza jarduera ingurune naturalean: ingurumen-eremuak eta -arazoak. Arrisku naturalak.
- Jasangarritasuna bultzatzeko neurri zuzentzaileak eta politikak.
- Baliabide naturalen eskasia. Energia berriztagarrien aukerak eta baldintzatzaileak.
- Ingurumena babesteko politikak. Gatazka ekologikoak.
- Ingurumena babesteko nazioarteko hitzarmenak. Kyotoko protokoloa, Klimaren konferentziak Paris (2015), Madril (2020)

3. MULTZOA. Paisaia naturalak: Euskal Herria, Iberiar Penintsula, Europa eta mundua

Euskal Herriaren ezaugarri naturalak:

- Egoera geografikoa. Bidegurutzeari Arku Atlantikoan.
- Euskal Herriko ekosistemak.
- Paisaien pluraltasuna: paisaia naturalak, erliebe-formak, hidrografia, klima, landaretza.
- Naturagune babestuak.
- Giza ekintza naturaguneetan.

Iberiar Penintsularen, Europaren eta munduaren ezaugarri naturalak:

- Egoera geografikoa.
- Eskualde kontinentalak.
- Iberiar penintsularen, Europaren eta munduaren ekosistemak.
- Paisaien pluraltasuna: paisaia naturalak, erliebe-formak, hidrografia, klima, landaretza.

- Naturagune babestuak.
- Giza ekintza naturaguneetan.

4. MULTZOA. Lurralde- eta politika-antolaketa

Antolaketa politikoa eta espazio geografikoa.

• Espainiako Estatuaren antolaketa: 1978ko Konstituzioa. Autonomien Estatua. Lehen xedapen gehigarria eta Foru Lurralde Historikoen eskubideei buruzko aipua.

- Gernikako Estatutua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde politikoak eta lurralde-antolaketa.
- Euskal lurraldeak, eraikitze bidean den ente dinamikoa. Euskal lurraldeen alderdi kulturalak eta soziopolitikoak.
- Lankidetzarako organismoak eta erakundeak, eskualde mailan.
- Europar Batasuna: erakundeak eta funtzionamendua.
- Nazio Batuen Erakundea: aurrekariak, sorrera, helburuak, antolaketa eta berezitasunak: kide iraunkorrak eta beto-eskubidea. NBEren mende dauden antolakunde espezializatuak.
- Nazioarteko beste antolakunde batzuk: Amerikako Estatuaren Erakundea (AEE), Arabiar Estatuaren Liga, etab. Munduko Bankua, Nazioarteko Diru Funtza. ELGA.
- Lankidetzarako organismoak eta erakundeak, nazioarte mailan.
- GKEak.

5. MULTZOA. Gizarte garaikideen kultura-aniztasuna

- Egungo gizarteetako arte- eta kultura-adierazpenak.
- Euskal Herriko eta Espainiako artea eta kultura aro garaikidean.
- Arte- eta kultura-ondarea kontserbatzea.
- Emakumeen presentzia artean eta kulturean.

6. MULTZOA. Komunikabideak

- Komunikabideak eta horiek gizartean duten eragina.
- Egungo komunikabideen ezaugarriak: multimedia mundu baterantz.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien eragina.
- Bat-bateko komunikazioa.
- Komunikazioen iraultza.
- Informazioaren globalizazioa.

7. MULTZOA. Ekonomia: etxeko ekonomiatik globalizazio ekonomikora

Oinarrizko kontzeptu ekonomikoak,

- Zer da ekonomia? Zergatik eragiten digu guztioi?
- Funtsezko eragile ekonomikoak.
- Baliabideen eskasia, hautaketa eta esleipena. Aukera-kostua.
- Etxeko ekonomia.
- Diru-sarrerak eta gastuak.
- Aurreztea eta zorpetzea.
- Arriskua eta dibertsifikazioa.
- Etorkizuna planifikatzea. Behar ekonomikoak bizitzaren etapa bakoitzean.
- Dirua.
- Banketxeekiko harremanak. Bankuko kontua. Finantza-entitateek ematen duten informazioa.
- Kontsumitzaileen eskubideak eta erantzukizunak finantza-merkatuan.
- Zordunketa- eta kreditu-txartelak.
- Interneten erostea.

Ekonomia,

- Finantza-merkatua.
- Globalizazio ekonomikoa eta garapen jasangarria.
- Interdependentzia eta globalizazioa.
- Merkatuen mundializazioa.
- Jarduera ekonomikoen deslokalizazioa.
- Merkataritza modu berriak.
- Garapen ekonomikoa eta truke desorekatua.
- Giza garapen desberdina.
- Munduko herrialdeen arteko aldeak.
- Giza Garapenaren Indizean oinarritutako konparazioak.
- Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak lan-munduan.
- Herrialdeen arteko lankidetzak-politikak.

8. MULTZOA. Administrazio publikoak

Administrazio publikoen diru-sarrerak eta gastuak.

- Aurrekontuaren kudeaketa. Helburuak eta lehentasunak.
- Administrazio publikoen diru-sarrerak eta gastuak.
- Zor publikoa eta defizit publikoa.
- Desberdintasun ekonomikoak eta errentaren banaketa. Administrazio publikoen erantzukizuna pertsonen errenta birbanatzen.
- Enpresen eta pertsona fisikoen zerga-betebeharrak. Iruzur fiskala.
- EAEko sistema fiskala. Ekonomia Ituna. Kupoa.
- Zerbitzu publikoen finantzaketa. EAEko zerga-sistema. Ekonomia Ituna.
- Zergak: solidaritatea, birbanaketa, betebeharrak indibidual eta kolektiboak.
- Interes-tasak. Kalkulua.
- Inflazioa.
- Atzeraldi ekonomikoa.
- Interes-tipoak aldatzearen ondorioak eta inflazioa.
- Finantza-espekulazioa.

9. MULTZOA. Egungo gizartearen aurrekari historikoak

- Gaur egungo gizartearen oinarri historikoak.
- Ilustrazioa. Haren eragina Euskal Herrian.
- Erreformismo ilustratua.
- AEBen independentzia eta Frantziako Iraultza. European, Espainian eta Euskal Herrian izandako ondorioak.
- XIX. mendeko iraultza liberalak European eta Ameriketan: prozesu bateratzaileak eta independentistak. Nazionalismoak.
- Estatu liberalaren eraketa XIX. mendeko Espainian.
- Tradizionalismoa eta liberalismoa aurrez aurre.
- Karlismoa eta liberalismoa aurrez aurre euskal lurraldeetan.
- Foruen gaia Euskal Herrian: garaipen liberala eta foruak indargabetzea.
- Euskal nazionalismoaren sorrera.
- Industria-iraultza. Arrazoiak eta European izandako ezarpena.
- Industria-iraultzaren aurrekariak eta ezaugarriak Euskal Herrian eta Espainian. Ondorio politikoak, sozialak eta kulturalak: migrazio-fluxuak.

- Langile-mugimenduaren sorrera.
- Sozialismoa.
- Bizimoduak hiri industrialean.

XX. eta XXI. mendeko gatazka handiak.

- XX. mendearen lehen erdialdeko aldaketa eta gatazka handiak.
- Gerra eta iraultza soziala.
- Lehen Mundu Gerra eta haren ondorioak Europan eta EAEn.
- Errusiako Iraultza.
- Totalitarismoen igoera Europan. Italiako faxismoa. 29ko Depresio Handia eta Alemaniako nazismoa.
- XX. mendearen lehen herena. Eraldaketak EAEn eta Espainian: Estatu liberalaren krisia.
- Espainiako II. Errepublika. EAeko egoera: EAeko Estatutua garatzeko oztopoak.
- Espainiako Gerra Zibila eta haren ondorioak EAEn. Lehenengo Eusko Jaurlaritza. Jose Antonio Agirre lehendakaria. Erbestea.
- Bigarren Mundu Gerra eta haren ondorioak Europan eta EAEn.
- Frankismoa. Diktadura frankista eta haren ezaugarriak EAEn.
- Blokeen politika munduan.
- 1973ko petrolio-krisia.
- Sobietar blokea erortzea eta horren nazioarteko ondorioak.
- Frankismoaren amaiera eta trantsizio politikoko garaia Espainian eta EAEn.
- 1978ko Espainiako Konstituzioa, Estatuko instituzio orokorren sorrera, eta Autonomien Estatua.
- Gernikako Estatutua eta euskal erakundeen garapena gaur egun arte.
- ETaren sorrera eta haren terrorismoaren historia, behin betiko amaiera deklaratu arte.
- GALen eta antzeko taldeen terrorismoa eta giza eskubideen urraketak motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan.
- Indarkeriaren eta terrorismoaren biktimen ikuspegia.
- Feminismoaren historia eta emakumeen borroka historian zehar eta gaur egungo gizartean duen eragina.

10. MULTZOA. Gatazkak eta bizikidetzaren berrezartzea

Mundu gatazkatsua: zenbait gatazka mota:

- Europako potentzien kolonialismoa eta prozesu deskolonizatzailea.
- Arrazakeria: etnien eta tribuen arteko gatazkak gaur egungo munduan.

- Zenbait kasu Afrikan.
 - Migrazio-mugimenduak: bilakaera eta joerak.
 - Gizarte kulturantzunak erreferentziazko herrialdeetan eta beste eremu batekoak diren eta bestelako garapen-maila duten herrialdeetan.
 - Kulturen arteko harremana. Gizarte- eta kultura-mugimendu berriak.
 - Desparekotasun sozialaren eta gatazken faktoreak: gutxiengoak, immigranteak, talde baztertuak, arrazismoa, sexismoa, gatazka etnikoak eta erlijiosoak, genero-indarkeria eta abar, tokiko eskalatik hasi eta mundu mailaraino.
 - Gizarte- eta kultura-mugimendu berriak.
 - Baliabideak eskuratzeko edo ustiatzeko nazioarteko gatazkak: ura, lehengaiak, energia-iturriak. Interes ekonomikoak eta baliabideak eskuratzeko gerrak.
 - Ñabardura kulturalak edo erlijiosoak dituzten gatazkak.
 - Islamismo integristaren adierazpen biolentoak.
 - Zenbait gatazka Europako herrialdeetan.
 - Lurralde- eta identitate-kontuekin lotutako gatazken deriba biolentoa: Euskal Herriko eta Irlandako kasua.
 - Lurralde berbera eskuratzeko liskarra: Palestina-Israel.
 - Lurraldeak banantzearen eta anexioen ondorioak: SESB ohia eta Balkanak.
 - Gaur egungo gerren azterketa: errefuxiatuen krisi humanitarioa.
 - Emakumeen papera gatazka handietan.
- Gatazkak eta bizikidetzak:
- Gatazka eta bizikidetzak: tipologia eta eskalak.
 - Gatazkei heltzeko modu historikoak.
 - Modu ez-demokratikoak eta biolentoak: inposizioa, inbasioak, gerrak, izua.
 - Modu ez-biolentoak eta demokratikoak: errespetua giza eskubideei eta sistema demokrati-koari, elkarrizketa, akordioak eta arbitrajea.
 - Demokrazia zuzenbide-estatu gisa: betekizunak (botere-banaketa, legeekiko errespetua eta pertsonen eskubide indibidual eta kolektiboekiko errespetua).
 - Immigrazioa Euskadin eta Espainian.
 - Immigrazioa eta giza eskubideak.
 - Immigrazioari laguntzeko GKEen zeregina.
 - Etorkinak helmugako herrialdean integratzea: zailtasunak eta gatazkak. Atzerritarren Legea Espainian.
 - Harrera-gizartean bizitzea eta bertan lan egitea. Diru-sarrerak bermatzeko errenta Euskadin eta etxebizitza eskuratzeko.

- Integrazio-programak.
- Arreta humanitarioa.
- Etorकिनak borondatez itzultzea.

11. MULTZOA. Giza Eskubideak: memoria eta erreparazioa

Giza eskubideak eta bizikidetzak.

- Balio etikoak eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (DUDH).
- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren oinarrian dauden printzipioak.
- Giza eskubideak garatzen dituzten nazioarteko itunak.
- Indarkeria terrorista eta giza eskubideen urraketak.
- Giza eskubideen urraketak.
- Biktimei egindako kaltea aitortzea eta erreparatzea.
- Giza Eskubideak eta Ongizate Estatua.
- Euskal Autonomia Erkidegoan genero-indarkeriaren aurka egiten diren erakundeak eta ekintzak.

Memoria eta indarkeria

- Legeak, betebeharrak sozialak eta printzipio etikoak. Kontraesanak eta harmonizazioa.
- Legitimitatea eta legezotasuna.
- Legitimitatea, mugak, kontrola eta abusuak indarkeriaren erabileran, zeina arautzea instituzioei dagokien demokrazian.
- Abusuak indarkeria erabiltzean, demokrazian erakundeei dagokiena.
- Erantzun bortitzak indarkeriarik gabekoen aurrean.
- Terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketan biktimei buruzko datuak eta errealitatea.
- Memoria kritiko baten beharra bai ETaren terrorismoari dagokionez, bai beste edozein mota-tako terrorismo, gerra, biolentzia edo giza eskubideen urraketari dagokionez ere.
- Memoria, Bizikidetzak eta Giza Eskubideen Institutua. Gogora.
- Indarkeriari buruzko gogoeta kritikoa.
- ETaren indarkeriaren amaiera. Bizikidetzarako garai berri bat.
- Mugimendu bakezaleak euskal gizartean eta euskal erakundeek egindako lana.
- Nazioarteko erakundeak eta bakea.
- Nazioarteko terrorismo berriaren inpaktua, gorantz doan errealitatea.

4.– EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-MAILAREN ADIERAZLEAK

1.– Egungo euskal, espainiar eta europar gizarteen ezaugarri bereizgarriak aztertzea, gizarte horiek osatzen dituzten talde sozialen aniztasuna aintzat hartuz eta haien dibertsitatearen pixkanakako hazkundea kritikoki baloratzuz.

- Beste kultura batzuekiko errespetua adierazten du.
- Gizarte desberdinetako kideen oinarritzko ezaugarri kulturalak bereizten ditu.
- Onartu kultura-desberdintasunak.
- Kultura-aniztasuna balioesten du, herriek eta gizabanakoek beren nortasunerako duten esku-bide gisa, eta beste kultura batzuekiko tolerantzia- eta errespetu-jarrerak hartzen ditu.
- Ikasleak beste hizkuntza eta kultura batean integratzen laguntzeko eta ikasleek euskal hizkuntza eta kultura ezagutzen eta errespetatzen laguntzeko ekimenetan laguntzen du.
- Hainbat kulturatako taldeekin lankidetzan aritzen da gero eta zabalagoak diren gizarte-esparruetan, berezko ezaugarriak baloratzuz eta mantenduz, bai eta beste kultura batzuenak errespetatuz eta balioetsiz ere.

2.– Askotariko informazioak (sozialak, historikoak, ekonomikoak, etab.) behar bezala bilatzea, erregistratzea eta tratatzea, informazio-iturri egokienak erabiliz, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berriak barne.

- Behar bezala hautatzen ditu informazio-iturriak, gai jakin bati buruzko informazioa lortzeko.
- Euskarri egokiak aukeratu edo sortzen ditu bildutako informazioak erregistratzeko.
- Informazioa bilatzeko oinarritzko bibliografia behar bezala erabiltzen du.
- Sarean informazioa bilatzeko tresnak (bilatzaile orokorrak eta espezializatuak) gaitasunez erabiltzen ditu.
- Informazioa berregiten du, esanahia emateko, testu, eskema, koadro, grafiko eta abarren bidez.

3.– Arte-adierazpen garrantzitsuenak identifikatzea eta balioestea, bai inguruan, bai eremu urrunagoetan, kultura guztiek gizateriaren arte-garapenari egiten dioten ekarpena balioesteko.

- Ea balioesten dituen artelanen balio estetikoak.
- Hainbat arte-estilotako artelanak alderatzen ditu, analogiak eta desberdintasunak hautemanetz.
- Garai eta leku desberdinetako artelan batzuk alderatzen ditu.
- Ea antzematen dituen artelanak, analogiak eta desberdintasunak, eta ea antzematen dituen batzuek besteengan dituzten eraginak.
- Hainbat garaitan emakumeek egindako artelanak ezagutzen ditu.
- Dauden ondare motak bereizten ditu.
- Euskal kultura- eta arte-ondarea eta beste kultura batzuetakoa balioetsi eta errespetatzen ditu.
- Ondarea babesteko eta kontserbatzeko ekintzak ezagutzen eta sustatzen ditu, banaka eta taldeka.

4.– Historiaren norabidean funtsezko aldaketak eragin dituzten garai historiko bakoitzaren eta gertaera zehatzen ezaugarri garrantzitsuenak azaltzea.

- Ondorengotzaren, iraupenaren eta aldiberekotasunaren oinarrizko nozioak erabiltzen ditu gertaera historiko garrantzitsuak aldi baterako antolatzeko.

- Etapa historiko bakoitzeko gertakari esanguratsuenen friso historikoa egiten du.

- Feminismoaren historia eta emakumeek historian zehar izan duten borroka ezagutzen ditu, baita egungo gizartean izan duen eragina ere.

- Gertaera edo prozesu historiko garrantzitsu batean eragina duten faktoreetako batzuk identifikatzen ditu, haien izaera zehaztuz eta haien artean loturaren bat ezarriz.

- Denboran eta espazioan identifikatzen eta kokatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren, Espainiaren eta Europaren historiako prozesu eta gertaera historiko garrantzitsuenak, haien bila-kaeraren ikuspegi globala eskuratzeko.

- Egungo gizarteak eremu espazial jakin batean dituen ezaugarriak deskribatzen ditu.

- Lehendik dauden erakundeen osaera eta funtzionamendua ezagutzen ditu, eta dagozkien lurralde-eremuetan kokatzen ditu.

5.– Gertaera eta prozesu historiko esanguratsuen kausak eta ondorioak identifikatzea, haien arteko loturak ezarriz eta gertaera historiko-sozialek duten kausalitate anitza aitortuz.

- Gertaera eta prozesu historiko-sozialak eragiten dituzten kausak identifikatzen eta sailkatzen ditu.

- Gertaera edo prozesu historiko garrantzitsu batean eragina duten faktoreetako batzuk identifikatzen ditu, haien izaera zehaztuz eta haien artean loturaren bat ezarriz.

- Gertaera baten zenbait ondorio zehazten ditu, eta epe labur, ertain eta luzera gertatzen direnak bereizten ditu.

- Gertaera edo egoera historikoen arteko kausa-efektu erlazioen kateak ezartzen ditu.

- Historia garaikidea osatzen duten prozesu historiko garrantzitsuenak ezagutzen ditu, eta gertaera politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen arteko harremanak identifikatzen ditu.

- Garai historiko bakoitzeko ezaugarri ekonomikoak, sozialak, politikoak eta kulturalak bereizten ditu.

- Azaldu nola eragiten dioten elkarri ezaugarri horiek.

- Etapa historiko bakoitza laburbiltzen du, alderdi ekonomikoak, sozialak, politikoak eta kulturalak erlazionatuz.

6.– Giza ekintzak ingurune naturalean eta haren narriaduran dituen inpaktuak identifikatu, deskribatu eta balioestea, horien arrazoiak eta ondorioak aztertzeke eztabaidak eginez, horiek tokian-tokian nahiz oro har mugatzeko eta garapen jasangarrirantz bideratutako jardunbideen sustapenean aktiboki eta arduraz inplikatzeko behar diren neurriak eta jokabideak emanez.

- Ea erlazionatzen dituen kausak, eta ea aurreikusten dituen giza portaera indibidual eta kolektibo jakin batzuek naturan eragin ditzaketan ondorioak.

- Ingurunekeo natura zaintzeari eragiten dioten arazo espezifiko batzuk identifikatzen ditu, eta, ikaskideekin batera, arazo horiek arintzeko ekintzak proposatzen ditu.

- Zuzeneko behaketaren bidez, inguruneko ingurumen-arazoei, horien kausei eta biztanlerian eta naturan izandako ondorio zehatzei buruzko informazioa jasotzen du.

- Ea ezagutzen dituen bere ohituretan eta ingurune pertsonaleko ohituretan ingurumenean eragin kaltegarriak, eta ea adierazten dituen horiek zuzentzera bideratutako proposamen batzuk.

- Hainbat hedabidetatik (bibliografikoa, prentsa, Internet...) ikusitako ingurumen-arazoen alternatibei buruzko informazioa jasotzen du.

- Euskal Autonomia Erkidegoko naturaren kontserbazioari eragiten dioten arazo espezifiko batzuen berri ematen du.

- Natura eta talde ekologistak kontserbatzera bideratutako mota desberdinetako ekimen instituzionalei buruzko informazioa jasotzen du sarean (erakunde ofizialetan kokatuta egon edo ez).

- Paisaia natural zehatzetan gertatzen diren aldaketa-prozesuen behaketak egiten ditu irudien bidez, eta prozesu horiek eragin ditzaketen giza ekintzekin lotzen ditu.

7.– Ekonomiaren oinarrizko printzipioak identifikatzea, terminologia ekonomikoa ezagutuz, eta diruaren, banku-tresnen eta finantza-merkatuaren oinarrizko funtzionamendua ezagutzea, administrazio publikoen diru-sarrera- eta gastu-iturri nagusien jatorria identifikatzeko, eta zerga-sistemak errenta birbanatzeko tresna gisa duen garrantzia ondorioztatzea.

- Hainbat termino ekonomiko zuzen ulertzen eta erabiltzen ditu.

- Eduki ekonomikoko datuak eta grafikoak interpretatzen ditu.

- Egungo gertaera ekonomikoak aztertzen ditu, ekonomia globalizatuaren testuinguruan.

- Diruaren, banku-tresnen eta finantza-merkatuaren oinarrizko funtzionamendua ezagutzea.

- Diru-sarrera publikoen jatorri-bideak identifikatzen ditu, bai eta xede dituzten arlo nagusiak ere.

- Subjektu bakoitzak zergak ordaintzeko duen betebeharrak jabetzen da, legeak adierazten duenaren arabera, bai eta gizartearentzat iruzur fiskalak eragiten duen kaltegarriak diren ondorio sozialetaz ere.

- Gaingiroki identifikatzen ditu EAEko egitura fiskala eta hainbat Administrazio Publiko, eta zer tresnatan oinarritzen den, foru-aldundien eginkizuna eta zerga desberdinen gaineko arautze- eta bilketa-ahalmena aztertuz.

8.– Norberaren ikaskuntzari buruz hausnartzea, autozuzendaritzako prozesu gisa. Prozesu horren bidez, ikasleek beren ikaskuntzari buruzko informazioa lortzen dute, eta adimen-gaitasunak gaitasun bihurtzen dituzte.

- Autorregulazio-estrategiak autonomiaz erabiltzen ditu, ikaskuntza hobetzeko.

- Norberaren nahiz besteen lanak berrikusteko eta hobetzeko zereginetan modu autonomoan parte hartzen du.

- Kontrol-zerrendak modu partekatuan egiten ditu, eta autoebaluazioko eta koebaluazioko jardueretan erabiltzen ditu.

- Dagozkion ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzeko interesa erakusten du.

- Onartzen du akatsa ikaskuntza-prozesuaren beste alderdi positibo bat dela.

- Jarrera proaktiboa eta asertiboa du ikaskuntzari datxezkion zailtasunak gainditzeko.
- Ikaskuntza-prozesuan zehar, pixkanaka bere gaitasunen eta gabezien kontzientzia hartzen du.
- Arian-arian ezagutzen ditu bere ikaskuntzaren ezaugarriak.

ARLO ZIENTIFIKO-MATEMATIKOA

SARRERA

Arlo zientifiko eta matematikoak Fisika, Kimika, Biologia, Geologia, Matematikak eta Teknologia arloetako curriculumaren oinarritzko alderdiak hartzen ditu erreferentziazat.

Ezagutza zientifiko eta teknikoak gaur egungo gizartean moldatzeko ezinbesteko tresna bat da: komunikabideetako mezuak ulertu, kontsumo eta ekonomia pertsonalaren arloan aztertu eta erabakiak hartu, askotariko neurriak hartu eta estimazioak egin, besteak beste. Arazo berriak sortu ditu planetaren narriadura gero eta handiagoak eta baliabideak agortzeak, eta, haiei erantzuteko, zientzia eta teknologia ongi erabili beharra dago, garapen jasangarria eta ingurumen aldetik orekatua lortuko bada. Garapen jasangarria lortzeko, hortaz, zientziak eta teknikak gizartearekin elkarlanean aritu behar du.

Ikuspegi honetatik, arlo zientifiko eta matematikoak alderdi horiek guztiak biltzen ditu curriculum-proposamen koherente eta integratu bat osatzeko, helduei gaur egungo munduaren eta dituen arazo nagusien ezagutza egokia emango diena, helburutzat izanik gizartean modu aktiboan eta arduratsuan txertatzeko bide ematea.

Arlo honek, zalantzarik gabe, bai biltzen duen helburu eta eduki multzoagatik, bai errealitate fisiko eta naturalari buruzko ezagutza eskuratzeko moduagatik, hezkuntza-potentzialtasun bereziki egokiak ditu helburu horiek lortzeko.

Zeregin teknologikoak alderdi subjektibo garrantzitsu bat du; izan ere, zientziaren ekarpen «objektiboez» gainera, albo-pentsamenduan ere oinarritzen da, sormenean: nahitaezkoa da premia jakin bati konponbide berri bat aurkitzea, edo nahitaezkoa da halako gailu berri batekin edo aurkikuntza zientifiko batekin zer egin daitekeen asmatzea.

Helduen hezkuntzan, arlo zientifiko eta matematikoak kontuan izan behar du pertsona horiek eskuratu dituzten ezagutzak eta esperientziak –norberaren bizi-ibilbidea, familia-egoera, lan-esperientzia edo bestelakoen ondorioz–, eta etengabeko ikaskuntzaren testuinguruan osatu, bideratu eta txertatu behar ditu. Helburua da oinarritzko gaitasunak ematea, hari esker hezkuntza-sistemaren maila desberdinetara iristeko, trebakuntza profesionala hobetzeko, eta beste lanbide batzuetan aritzeko prestakuntza eskuratzeko, eta, horrekin batera, gizartean, kulturean, politikan eta ekonomian parte hartzeko gaitasuna garatzeko.

Arlo hau erabakigarria da oinarritzko zehar-konpetentziak eta diziplinako konpetentziak garatzeko eta eskuratzeko, batik bat konpetentzia zientifikoak, teknologikoak eta matematikoak.

HELBURUAK

1.– Eguneroko bizitzatik ateratako arlo zientifiko-matematikoko problemak identifikatzea, planteatzea eta ebaztea, eta ikerketa txikiak egitea, banaka zein elkarlanean zenbait estrategia erabiliz, ebazteko prozesua justifikatuz, emaitzak interpretatuz eta egoera berriei aplikatuz, hartara ingurune sozialean modu eraginkorragoan jardun eta erabaki arduratsuak hartu ahal izateko.

2.– Kalkuluak eta estimazioak (zenbakizkoak, metrikoak, etab.) segurtasunez eta konfiantzaz egitea, egoera bakoitzean prozedura egokienak (buruzko kalkulua, idatzia, kalkulagailua...) erabiliz, bizitzako egoerak interpretatzeko eta balioesteko, eta emaitzak sistematikoki berrikustea.

3.– Natura- eta kultura-inguruneko forma geometrikoak identifikatzea, elementuen, erlazioen eta propietateen ezagutza erabiliz errealitatea deskribatzeko, eta ezagutza geometrikoak aplikatzea inguruan dugun mundu fisikoa ulertzeko eta aztertzeke, eta hari buruzko problemak ebazteke.

4.– Giza organismoaren jakintza zientifikoa erabiltzea, gorputzaren funtzionamendua eta osasuntsu egoteko baldintzak azalduta. Helburua zaintze- eta arreta-ohiturak garatzea eta norberaren eta komunitatearen ongizatea lortzen laguntzea da.

5.– Ekosistemen eta fenomeno natural batzuen funtzionamenduari buruzko jakintza zientifikoa erabiltzea, gertatzen diren interakzioak, oreka eta hori oztopatzen duten faktoreak azalduta, honako helburu hauekin: natura baloratzea, kudeatzea eta naturaz gozatzea, zientziak eta teknologiak gizartearekin eta ingurumenarekin duten harremanak kritikoki aztertzea, eta garapen jasangarriaren alde aktiboki eta arduraz parte hartzea.

6.– Arlo zientifiko-matematikoari buruzko informazioa lortzea zenbait iturritatik –analogikoak nahiz digitalak–; eta informazio hori erabiltzea, edukia balioetsiz eta kontuan hartuz gai horiei buruzko lanak funtsatzeko, bideratzeko eta lantzeko duten baliagarritasuna; eta gai horiei buruz nork bere jarrerak hartzea, funtsatuta eta ikuspegi kritikoz.

7.– Arlo matematiko-zientifikoko informazioa duten mezuak aktiboki eta kritikoki interpretatzea eta mezuak sortzea, ahozko zein idatzizko hizkuntza egoki erabilia, baita notazioko eta adierazpide matematikoko beste sistema batzuk erabiltzea ere, arlo honetan zehatz komunikatzeko eta azalpenak eta argudioak eman ahal izateke.

8.– Errealitatea azaltzen duten eskemak eraikitzea, fenomeno natural nagusiak interpretatzeko edota gure gizarteko garapenak eta aplikazio zientifiko-teknologikorik garrantzitsuenak aztertzeke, kontzeptu, printzipio, estrategia, balore eta jarrera zientifikoa erabilia.

9.– Zientziaren izaeraren ezagutza erabiltzea, historian zehar gertatutako iraultza zientifikoa aintzat hartuta, gizadiaren bilakaera kulturalean, gizakion beharren gogobetetzean eta bizi-baldintzen hobekuntzan ezagutza zientifikoaren garrantzia ulertzeko eta balioesteko.

10.– Eskura dauden bitartekoekin, eremu fisiko zein birtualean, problema teknologiko bati konponbidea ematea, eta, beharrezkoa bada, kontrol-programa egitea, segurtasun- eta ergonomia-arauak kontuan hartuta eta etengabeko atzeraelikaduraz, egindakoa planteatutako baldintzetara egokitzeko.

11.– Parte aktiboa izatea, eta lankidetzako aplikazioak erabiltzea Interneten, sare sozial birtualetan, informazio-igortzaile eta -hartzaile moduan, ekimen komunak sustatzeko. Lan horretan, errespetuz eta elkarlanean jardungo du, produktu kolektiboak sortu ahal izan daitezen.

EDUKI-MULTZOEN EZAUGARRIAK

Arlo zientifikoa eta matematikoa garatu ahal izateke, gai batzuk aukeratu ditugu, eta modu jakin batean taldekatu, eduki-multzoak deitu ditugunak sortuz.

Eduki multzoak elkarrekin erlazionatutako jakintza multzo gisa ulertzen dira, eta, haiek antolatzeke, problema egituratzaileak hartzen dira abiapuntu, ildo horiei jarraituz multzo horiek sekuentziatzeko eta elkarrekin erlazionatzeko, eta, hala, ikaskuntza integratzailea bideratzeko.

Ezagutza komuneren multzo bat sartu da, eta hor biltzen dira, batetik, arlo guztiei dagozkien oinarriko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak, horiek baitira arlo honetan biltzen diren ezagutzen ardatz zeharkakoa eta egituratzailea eta, bestetik, arlo honetako multzo guztiei dagozkien edukiak.

Zati honetan, espresuki aipatzen da curriculumaren oinarrizko gai bat: problemak ebaztea. Horrekin batera, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiltzeari buruzko alderdiak ere jasotzen dira, eta jarrerari lotutako edukiak ere bai. Gainera, prozedurari eta jarrerari lotutako edukiak ere sartu dira, arlo guztiei dagozkenez zehar-kompetentziekin estu-estu lotuta baitaude.

Problemak ebaztea funtsezkoa da. Eguneroko bizitzako eta arlo zientifiko eta matematikoko arazoak identifikatzea, datu eta erlazio garrantzitsuak bereiztea, aieruak formulatzea, ebazpen zehatz edo hurbilduko estrategiak garatzea, planteatutako aieruak eta lortutako emaitzak aztertzea, eta emaitzak antolatzea eta jakinaraztea arlo honetako eremu guztietan aplika daitezkeen prozesu eta eduki komunak dira.

Problemen ebazpena aztertzeko erabakiak bi helburu ditu. Lehenik, ikasgelako lanean merezi duen arreta eta denbora eskaintzea: eragiketek, neurriek, kalkuluek, arrazoiketek... problemak ebazteko erabiltzen direnean hartzen dute beren benetako zentzua. Baina, eduki bat izateaz gain, problemak ebaztea metodo bat ere bada, arlo honetan eguneroko lana ulertzeko modu bat.

«Informazioaren eta komunikazioaren teknologia» multzoak ikasleak bere ikaskuntzan erabiltzen duen teknologia biltzen du. Ez da ekipamendu informatikoa bakarrik: tableta, ordenagailu eramangarria, telefono adimenduna eta abar. Multzo honetako edukien artean dira, halaber, ikastetxeak definitutako espazio birtual osoa, intraneta edo kontuak, profilak eta abar eskatzen dituzten bestelakoak, ikasleek irakasleekin zein beste kideekin interaktuatzeko kudeatu beharrekoak.

Azpimarratzekoa da komuna eta globala den ikaskuntza zientifikoan duen garrantzia: ingurune naturalarekiko esperientzia globala izan ohi delako, eta askotariko alderdiak biltzen dituelako ia beti, ingurune horrekiko jarduketak ez duelako bereizketarik egiten zientzien artean, eta ezagutzara eraikitzeko prozedurak funtsean komunak direlako.

Eduki komun horiek eduki-multzo bakoitzean garatu beharrekoak dira, baina horrez gain, sakonago jorratze aldera, gutxienez ikerketa-proiektu bat egingo da, landutako eduki-multzoetako batekin lotua. Multzo hori landuta, ikerketa-lana egoki egiteko baliagarriak diren edukiak finkatuko dira.

Eduki matematikoak hiru multzo handitan banatu dira: Zenbakiak eta Aljebra, Geometria eta Neurria, Informazioaren irudikapena eta Tratamendua, barnean direla Funtzioak eta Estatistika eta Probabilitatea. Adierazi beharra dago antolatzeko modu bat baino ez dela hori. Kontua ez da konpartimentu estankoak sortzea: multzo guztietan zenbakizko teknikak eta teknika aljebraikoak erabiltzen dira, eta edozeinetan erabilgarria izan daiteke taula bat sortzea, grafiko bat egitea edo probabilitateari buruzko ziurgabetasun-egoera bat sorraraztea.

4., 5., 6. eta 7. eduki-multzoek Lur planetaren dibertsitatea dute hari gidarizat. Hasteko, unibertsoaren ikuspegi orokor bat ematen da, haren barruan Lurraren kokapena zein den zehazten da, eta, ondoren, planetako biodibertsitatea eta horrekin lotutako arazoak jorratzen dira. Izaki bizidunen dibertsitate izugarria hobeto ulertze aldera, erregulartasunetan jarriko da arreta, haien arabera sailkatzeko. Lehendabizi, izaki bizidunen egitura-unitatea eta antolaketa azalduko dira, zelulatik, biziaren oinarrizko unitatetik, hasi, eta organismo konplexuetaraino –gizakia, esaterako–. Giza gorputzaren azterketa osasunerako hezkuntzarekin lotuta bideratuko da, ohitura osasungarrien garrantzia nabarmenduz, eta azpimarratuz sistema organiko bakoitzaren funtzionamendu egokia lotuta dagoela higieinarekin eta gaixotasunen prebentzioarekin. Ikasturtearen bukaeran, organismoen eta ingurunearen arteko erlazioak landuko dira, ekosistemen azterketaren bidez; gizakiaren jarduerak ekosistemetan eragiten dituen inpaktuak azalduko dira; eta ekosistemak kontserbatzeko eta zaintzeko beharra azpimarratuko da.

Hurrengo eduki-multzoen hari gidaria materiaren propietateak eta aldaketak aztertzeak osatzen dute. Hasieran, materiaren propietateak eta dibertsitatea aztertuko dira, eta gero, erregulartasunak bilatuko dira, haiek oinarri hartuta dibertsitate horren barnean hasierako sailkapen bat egiteko. Horren ostean, materiaren aldaketak aztertuko dira, eta energia kontzeptua azalduko da, aldaketan eragile den aldetik; horrela, aldaketa horien azalpen kualitatibo bat egingo da, ikuspegi globalizatzaile batetik. Era berean, indar kontzeptua azalduko da, eta indar motak eta haien aplikazio batzuk deskribatuko dira.

Gure inguruneko sektore artifizialari eragiten dion eduki multzo batekin bukatzen da: gizakiak teknologiak baliatuz sortu dituen produktuak, historian zehar aldaketa sozialak eragin dituztenak. Multzo honetan sartzen da, halaber, arazo praktikoak ebazteko metodoa, haren metodologia, lantzen ari den problema espezifikoak ebazteko izan beharreko jakinduria teknikoa, bai eta dokumentazio teknikoa interpretatzeko eta komunikatzeko aukerak ere. Euskal Herriko testuingurua ere aipatzen da, gauzatze teknologikoei dagokienez.

EDUKIAK

1. MULTZOA. Eduki komunak

a) Arlo guztietan komunak diren oinarritzko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak.

Eduki-multzo honetan biltzen diren prozedurek eta jarrerek xede hauek dituzte:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, biltegitratzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatu, sailkatu, sekuentziatu, aztertu eta sintetizatu), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatu, definitu, laburbildu, azaldu...)
- Informazioa ebaluatzea eta adieraztea (argudiatu, justifikatu...)
- Ideiak sortzea, hautatzea eta adieraztea.
- Ideia, zeregin eta proiektuen plangintza eta bideragarritasuna aztertzea.
- Planifikatutakoa egikaritzea eta, beharrezko bada, doitzea.
- Planifikatu eta egin dena ebaluatzea eta hobekuntza-proposamenak egitea.
- Lortutako emaitza komunikatzea.
- Harremanen garapena eta pertsona arteko komunikazioa (enpatia eta asertibitatea).
- Lankidetzeta eta elkarlana, taldean ikasteko zereginetan.
- Giza eskubideak eta konbentzio sozialak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Gorputz-dimentsioaren autorregulazioa.
- Emozioen autorregulazioa.
- Estilo kognitiboaren autorregulazioa.
- Portaera moralaren autorregulazioa.
- Motibazioaren eta borondatearen autorregulazioa.

b) Arlo zientifiko eta matematiko honetako multzo guztien eduki komunak.

– Problemak ebaztea

- Problemak ebazteko metodo orokorrak (Polya, Miguel de Guzmán).
- Problemak ebazteko heuristikorik erabilienak: entsegua/errorea, problema bat ebaztea, problema bat problema txikiagoetan banatzea, problema birformulatzea, taulak erabiltzea, zenbaketa zehatza, diagramak edo marrazkiak.
- Zenbakizko jarraibideekin, jarraibide alfanumerikoekin edo geometrikoekin zerikusia duten problemak ebaztea.
- Problemak ebazteko erabilitako prozedura ahoz azaltzea.
- Prozesuaren arrazoibidea eta emaitzak egiaztatzea.
- Aieruz aritzea, datuen aldaketa hipotetikoak egin ondoren.
- Zenbakiei, neurriei, geometriari, zoriari eta abarri buruzko matematika-ikerketak errazak.
- Modelizazio matematikoa errealitateko testuinguruetan eta testuinguru matematiko errazetan.

– Hezkuntza zientifikoa

• Fenomeno naturaletako eta egoera errealeko arazoak behatzeko, identifikatzeko eta ebazteko behar den metodologia zientifikoa eta bere ezaugarri nagusiak aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak: behaketa egitea, eztabaidatzea, hipotesiak eratzea, egiaztatzea, esperimentatzea, ondorioak ateratzea eta emaitzak jakinaraztea.

• Lan zientifikoaren berezko estrategiak, honako jarrera hauek sustatzeko: jakin-mina, interesa, zehaztasuna eta doitasuna, sormena, pentsamendu kritikoa, norberaren lanean ahalegintzea eta autonomia izatea, zereginetan jarrera arduratsua eta aktiboa izatea.

• Baliabideen aurrean jarrera arduratsuak garatzeko eta eguneroko bizitzan ingurumena hobetzeko estrategiak.

• Gizakiak bizitzeko naturarekiko duen mendekotasunaz ohartzeko baliabideak.

• Zientzia-jardueran aritzen diren pertsonenganako ikuspegi estereotipatua eta zientzia-ezaguerak testuinguru sozialetik eta historikotik ateratzeko joera gainditzeko estrategiak.

– Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

Bitarteko teknologikoa erabiltzeko jarraibideak, helburu hauekin:

• Zenbakizko kalkuluak, kalkulu eta grafiko estatistikoak, irudi geometriko eta grafiko errazak (laguntzaile matematikoak) eskatzen dituzten problemak ebaztea.

• Gauzatutako prozesuei eta lortutako emaitzei eta ondorioei buruzko txostenak eta dokumentuak egitea.

• Informazioa eta egindako dokumentuak ingurune egokietan komunikatu eta partekatzea.

2. MULTZOA. Informazioaren adierazpidea eta tratamendua

– Funtzioen hizkuntza

- Magnitudeen arteko mendekotasun funtzionala. Egunerokotasuneko eta beste irakasgaietako fenomenoak irudikatzen dituzten grafikoen azterketa eta deskribapen kualitatiboa.

- Funtzioa. Funtzio baten adierazteko moduak: hitzezko deskribapena, taula-formakoa, grafikoa eta aljebraikoa.

- Funtzio linealak eta afinak. Proporzionaltasunarekin duten erlazioa. Adierazpide aljebraikoa eta irudikapen grafikoa.

- Eguneroko bizitzatik datozen egoerak eta zenbait ezagutza-esparru ikertzeko eredu linealak, horretarako taulak eginez, grafikoak irudikatuz eta adierazpide aljebraikoa lortuz.

- Zuzenaren ekuazioa. Adierazpide desberdinak: bi punturen bidez definitutako ekuazioa, puntu-malda ekuazioa, orokorra eta esplizitua. Maldaren interpretazioa.

- Funtzio koadratikoak. Irudikapen grafikoa. Eguneroko bizitzako egoerak eta jakintza-arlo askotarikoak irudikatzeko erabiltzea. 2. mailako ekuazioarekin duen erlazioa.

– Estatistika eta probabilitatea

- Estatistika deskribatzailearen oinarrizko elementuak: populazioa, lagina. Aldagai kualitatiboak, kuantitatiboak.

- Taula estatistikoak. Maiztasun absolutuak, erlatiboak eta metatuak.

- Grafiko estatistikoak. Grafikoen alderdirik azpimarragarrienak aztertu, interpretatu eta lantzea.

- Zentralizazio-neurriak: batez besteko aritmetikoa, mediana eta moda. Sakabanatze-neurriak: ibiltartea edo heina. Esanahia, estimazioa eta kalkulua.

- Ausazko fenomenoak. Ausazko gertakariak. Gertakari baten maiztasuna. Maiztasun erlatiboa. Probabilitatearen kontzeptua.

3.–MULTZOA. Ikerketa-proiektua

- Curriculumaren edukietako bati buruzko ikerketa-proiektua, metodologia zientifikoarekin duen trebetasuna praktikan jartzeko.

4. MULTZOA. Zenbakiak eta aljebra

- Zenbaki osoak. Irudikapena zenbakizko zuzenean. Eragiketak zenbaki osoekin. Zeinuen irizpideak. Eragiketen arteko hierarkia eta parentesiak erabiltzeko arauak kalkulu errezetan.

- Berretzaile naturala duten zenbaki osoen berreketak. Eragiketak berreketekin. Zenbaki handiak eta eragiketak irudikatzeko notazio zientifikoa.

- Erro karratuak. Erro hurbilduak kalkulatu eta lortzea.

- Zenbaki arrazionalak. Zatikien, hamartarren eta ehunekoen arteko erlazioak. Kalkulu-estrategiak (buruz, idatziz edo kalkulagailuz) prestatzeko dituzten aplikazioak.

- Kalkuluak ehunekoekin. Ehunekoak igotzea eta txikiagotzea. Aplikazioak eguneroko bizitzako problemetan.
- Magnitude zuzenki eta alderantziz proportzionalak. Proportzionaltasunaren konstantea.
- Banaketa zuzenki eta alderantziz proportzionalak. Problemen ebazpena.
- Adierazpide aljebraikoa, ezaugarriak orokortzeko eta erlazioak sinbolizatzeko. Formula eta termino orokorrak lortzen ditu, jarraibideak eta erregulartasunak behatuta.
- Adierazpen aljebraiko errazak dituzten eragiketak.
- Bigarren mailako ekuazioak, ezezagun batekin (metodo aljebraikoa)
- Bi ekuazio linealeko sistemak, bi ezezagunekin. Ebazteko metodo aljebraikoak eta metodo grafikoa.
- Problema ekuazio bidez ebaztea.
- Kalkulagailua eta software informatikoa erabiltzea, ekuazioak ebazteko, sistemak ebazteko, eta abar.

5. MULTZOA. Geometria eta neurria

- Planoaren geometria. Irudi edo konfigurazio geometrikoak zehaztea, zenbait propietateetatik abiatuta. Perimetroak eta azalera.
- Thales eta Pitagorasen teorema.
- Eskalak. Antzekotasun-arrazoia.
- Problema geometrikoen eta ingurune fisikoko ebazpenean aplikatzea.
- Espazioaren geometria: poliedroak eta biraketa-gorputzak. Azalera eta bolumenak,
- Lurbira. Koordinatu geografikoak. Leku baten longitudea eta latitudea.

6. MULTZOA. Lur planeta

Atmosfera.

- Atmosferaren osagaiak eta propietateak.
- Atmosferaren zeregin babeslea eta berotegi efektua ezagutzea, aireak izaki bizidunentzat eta gizakiaren osasunarentzat duen garrantziaz eta airea zaintzen lagundu beharraz ohartzea.
- Airearen kutsadura eta biziaren garapenean duen ondorioa.

Hidrosfera.

- Ura Lurrean, likido-, solido- eta gas-egoeran: ugaritasuna eta propietateak.
- Uraren zikloa Lurrean eta Eguzkiarekin duen harremana, energia-iturri gisa.
- Ur geza baliabide mugatua da: ur gezaren erreserbak Lurrean, eta haiek kontserbatu eta neurrian erabiltzearen garrantzia.
 - Ur gezaren eta gaziaren kutsadura.

- Uraren arazketa eta zainketa. Ura eta osasuna.

Geosfera.

- Geosfera. Lurrazalaren, mantuaren eta nukleoaren egitura eta osaera.
- Harriak eta mineralak: aniztasuna, eta identifikatzeko eta sailkatzeko ezaugarriak. Mineralen garrantzia eta erabilgarritasuna.
- Mineralak eta harriak identifikatzeko gako errazak erabiltzeko jarraibideak.
- Harrien garrantzia eta erabilgarritasuna. Baliabideak arrazoiz erabiltzea.
- Harririk eta mineralik ugarienen ingurunean eta Euskal Herrian.

7. MULTZOA. Lurraren erliebea eta haren bilakaera

Kanpoko aldaketa geologikoak

- Lurraren erliebearen modelatua baldintzatzen duten faktoreak. Kanpoko eragile eta prozesuak: meteorizazioa, higadura, garraioa eta sedimentazioa. Lurraren kanpo-energiarekin duten erlazioa.
- Izaki bizidunen ekintza geologikoak. Giza espeziea eragile geologiko.
- Erliebea modelatzearen ondorioz sortutako paisaia bereizgarri motak Euskal Herrian.
- Barneko aldaketa geologikoak
- Lurraren barne-egitura.
- Barne-geodinamikaren adierazpenak Lurraren erliebean: erupzio bolkanikoak eta lurrikarak,
- Arrisku bolkanikoak eta sismikoak. Aurreikuspenaren eta prebentzioaren garrantzia.

8. MULTZOA. Izaki bizidunak

Biosfera.

- Izaki bizidunen ezaugarriak. Bizi-funtzioak: nutrizioa, harremanak, ugalketa. Nutrizio autotrofoa eta heterotrofoa. Fotosintesia.
- Zelula, izaki bizidunen egitura- eta funtzio-unitate den aldetik. Zelularen teoria eta Biologian duen garrantzia.
- Materia biziaren antolaketa-mailak.
- Izaki bizidunen dibertsitatea eta inguruneari egokitzea: giroak, neurriak, formak, elikadura, Izaki bizidunen sailkapena.
- Izaki bizidunen sailkapena: bost erreinuak. Antolaketa-eredu handiak: landareak eta animaliak Izaki bizidunak identifikatzeko gako errazak erabiltzeko jarraibideak.
- Bakterioak, onddoak, protoktistak. Likenak.
- Animalia ornodunak eta ornogabeak: ezaugarri anatomiko eta fisiologiko nagusiak.
- Landareak: ezaugarri nagusiak, nutrizioa, harremanak eta ugalketa.

- Biodibertsitatea.
- Lurra planeta bizigarri egin zuten ezaugarriak.
- Biodibertsitatearen hastapenak. Euskal Herriko espezie bereziak. Biodibertsitatearen galera.
- Izaki bizidunen dibertsitatea mantentzearen garrantzia. Dibertsitatea galtzeak dakartzan arazoan azterketa.

9. MULTZOA. Pertsonak eta osasuna

- Giza gorputzaren antolaketa orokorra: aparatuak eta sistemak, organoak, ehunak eta zelulak.
- Osasuna eta gaixotasuna. Osasunaren alorreko faktore erabakigarriak. Gaixotasuna eta gaixotasun motak. Gaixotasun infekziosoak eta ez-infekziosoak.
- Higienea eta gaixotasunen prebentzioa. Ohitura osasungarrien garrantzia balioestea.
- Immunitate-sistema. Txertoak. Zelulak, odola eta organoak transplantatzea eta ematea.
- Elikadura-ohitura osasuntsuak: dieta orekatuak eta elikadura-segurtasuna. Elikadura-portaeraren arazoak.
- Koordinazioa eta nerbio-sistema: antolaketa eta funtzioa.
- Sistema endokrinoa: glandula endokrinoak eta funtzionamendua. Alterazio nagusiak.
- Osasunerako arriskutsuak diren jokaerei aurre egiteko jarrera arduratsua izatea. Gizarteak jokabideetan duen eragina.
- Lokomozio-aparatuak. Lesio ohikoak eta prebentzioa.
- Giza ugalketa. Ugalketa-aparatu maskulino eta femeninoak. Giza ugalketaren teknika berriak. Osasuna eta higie sexuala.

10. MULTZOA. Gizakia eta ingurunea. Ekosistemak

- Ekosistemak. Ekosistema baten osagaiak. Faktore abiotikoen eta biotikoen eragina ekosistemetan eta haien interakzioetan.
- Kate eta sare trofikoak.
- Ur gezatako eta itsas uretako ekosistemak. Ekosistema lehortarrak. Euskal Herriko ekosistema garrantzitsuak.
- Ekosistemetan desorekak eragiten dituzten faktoreak. Ekosistemen mehatxuak. Ingurumena kontserbatzeko lagungarri diren ekintzak.
- Giza jarduerak ekosistemetan duen inpaktuaren balorazioa: Euskal Herriko gune babestuak.

11. MULTZOA. Materia eta haren aldaketak

- Materiaren ezaugarri orokorrak. Propietate bereizgarriak. Magnitude fisikoak eta haien neurria. Nazioarteko Unitate Sistema.

- Materiaren agregazio-egoerak: solidoa, likidoa eta gasa. Egoera-aldaketak. Eredu zinetiko-molekularra.
 - Nahastea eta substantzia. Eguneroko bizitzan duten garrantzia.
 - Substantzia sinpleak eta konposatuak.
 - Elementu kimikoaren kontzeptuaren sarrera. Unibertsoa, elementu berberetz osatua. Elementu kimikoen sistema periodikoaren hastapenak.
 - Lotura kimikoaren hastapenak. Atomoen arteko lotura: molekulak eta kristalak.
 - Eguneroko bizitzan interesgarri diren materialak: erabilera eta propietateak. Material berriak. Materialen kaltegabetasuna, iraunkortasuna, berriztagarritasuna eta birziklatzea.
 - Aldaketa motak: aldaketa fisikoak eta aldaketa kimikoak.

Lekualdatzeak:

- Mugimendua: erreferentzia-sistemak, ibilbidea, posizioa, egindako bidea. Mugimendu zuzen uniformeak. Batez besteko abiadura, aldiunekoa.
 - Mugimendu errazen grafikoak.

Aldaketa termikoak

- Beroa, aldaketen eragile. Beroa eta tenperatura bereiztea. Egoera-aldaketak. Eroale eta isolatzaile termikoak.
 - Beroaren erabilera praktikoak dituen aplikazioen garrantzia baloratzea.

Aldaketa optikoak eta soinuari dagozkionak

- Argia eta ikusmena: objektuak argi-iturri sekundario gisa.
 - Argiaren hedapen zuzena norabide guztietan.
